

Enkarterri Eskualdeko 2030 Plan Estrategikoa



Aurkibidea

1	Testuingurua eta erreferentzia-esparrua	3
1.1	Aurrekariak eta ikuspegia	3
1.2	Enkarterri Eskualdeko Plan Estrategikoaren ikuspegia	4
1.3	Plana egiteko prozesuaren azalpena	5
2	Eskualdearen osoko diagnostikoa	8
2.1	Suspertze ekonomikoa	9
2.2	Enplegua eta Prestakuntza	12
2.3	Gizarte Kohesioa eta Zerbitzu Publikoak	16
2.4	Hiri eta Ingurumen Biziberritzea	19
2.5	Lurraldea eta Jasangarritasuna	22
2.6	Ondorio nagusiak	24
3	Eskualdeko Plan Estrategikoaren (EPE) estrategia	27
3.1	Erronka estrategikoak eta etorkizuneko ikuspegia: Enkarterri 2030	27
4	Eraldaketa-programa	30
4.1	2020ko jarduerak	30
4.2	Eraldaketa Programako jarduketan identifikazioa	30
4.3	Trakzio-proiektuak	35
4.4	Trakzio-proiektuak. Eusko Jaurlaritzaren ekarpen berezia 2021-2023	45
5	Gobernantza eta Planaren aginte-koadroa	46
5.1	Gobernantza-mekanismoa	46
5.2	Aginte-koadroa	49
6	Eranskina	54
7	Enkarterri 2021-2023 EPEaren baliabideak	56

1 Testuingurua eta erreferentzia-esparrua

1.1 Aurrekariak eta ikuspegia

2017ko irailean, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Enkarterri eskualdeko udalerriek 2018-2019 aldirako plan berezi bat definitzea adostu zuten, Enkarterriren garapena sustatzen laguntzeko. Foru Aldundia buru zela, Eusko Jaurlaritzaren eta eskualdeko udalerrien lankidetzarekin Plan bat jarri zen abian 2018-2019 aldirian ezartzeko premiazko 12 neurri suspergarriekin.

1. Europar Batasunak onartutako programa bat sustatzea, Enkarterrin enpresa-inbertsioa babesteko.
2. Eskualdeko industria-ehuna indartzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta lanpostu berriak sortzeko proiektua.
3. Ekintzailtza-programa aurreratua, enpresa- eta enplegu-arloko ekimen berriei bidea errazteko, gazte eta emakumeei arreta berezia eskainiz.
4. Eskualdeko baso-baliabideen aprobetxamendu sozioekonomikorako ekintzak.
5. Abeltzaintzako ustategien errentagarritasuna hobetzeko neurriak ezarri eta abeltzaintza-sektoreko ekoizle berriak finkatu.
6. Eskualdeko lurzoru industrialen katalogo eguneratua egin, dauden industrialdeak garatu eta lurzoru industrialeko jarduketa berriak egin.
7. Enplegu-eskaera duten sektoreetan langabeak birkualifikatzeko proiektua garatu, batez ere eskualdeko enplegu-erregulazioko espedienteetatik eta enpresa-itxieretatik datozenak.
8. BI-630 errepidea hobetu, premiaz egin La Herrera-Malabrigo zatia.
9. Enkarterriko trenbide-loturak eta -instalazioak hobetzeko plana.
10. Banda zabala hedatu, jarduera ekonomikoko eremuetan eta biztanle-guneetan Interneteko konexioa bermatzeko.
11. Bizkaibusek eskualdean dituen lineetan doikuntzak egin.
12. Bizkaiko Foru Aldundiaren osoko arretarako bulego bat ireki Enkarterrin.

Plan honetarako hitzemandako osoko aurrekontuak erabat gainditu zuen hasieran aurreikusitako zifra eta 10,3 milioi eurora iritsi zen, BI-630 errepidea hobetzeko aurrekontuan hazkunde esanguratsuak egon baitziren, baita Enkarterriko enpresen lehiakortasuna hobetzeko neurrietan ere.

2018ko maiatzean Ezkerraldearen, Meatzaldearen eta Oarsoaldearen egoera sozioekonomikoa aztertzeko Ponentziak egindako txostenaren ondorioak ikusi eta gero Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen Enkarterri ere sartu beharra zegoela, eskualde horretan ere ekonomia eta gizartea suspertzeko neurriak hartu beharra zegoelako.

Enkarterriko Eskualdeko Plan Estrategikoa eskualdearen ekonomia eta gizartea suspertzeko epe luzeko erakunde arteko ahalegina da

Ondorioetan proposatzen zen eskualdeko planteamendutik abiatuta -diagnostikoaren eta lehenengoa ikuspegi partekatua- eta bi jarduketara mota egitea komeni zela:

Lehenengo fasean talka-planak zehaztu eta abian jarri behar ziren (Enkarterriren kasuan, jada hasitako Estimulu Plana), 2018an eta 2019an ezarri beharreko premia- neurriekin. Ondoren, bigarren fasean, eskualde horiek suspertzeko epe ertain eta luzeko plan estrategikoak egin eta abian jarriko ziren

Beraz, Enkarterri Eskualdeko Plan Estrategikoa Estimulu Planaren jarraipena izango da eta Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak definitutako baterako oinarrien arabera egin da, udalerriz gairi eta eskualdean artikulatutako estrategiak eta/edo planak abian jartzeko beharra dagoelako; horretarako, adostasunean oinarritu eta eskualde bakoitzaren suspertze sozioekonomikorako elementu nagusiei heldu behar zaie epe ertain eta luzean, Eskualdea osotasunean indartu dezaten.

1.2 Enkarterri Eskualdeko Plan Estrategikoaren ikuspegia

Eskualdeko Plan Estrategikoaren (aurrerantzean, EPE) xedea ez da administrazioek 2030era arte hainbat programetan garatuko dituzten jardura guztiak zehatz jasotzea, ezinezkoa bailitzateke jardura horiek guztiak agiri bakar batean jasotzea.

Bestalde, EPEarekin planteatu nahi den helburu nagusia da programa eraldatzailea definitzea eta sustatzea, Enkarterriren suspertze sozioekonomikorako proiektu estrategikoak eta trakzio-proiektuak identifikatuz eta ondorioz, eskualdeko baldintza ekonomikoak Bizkaiko/Euskadiko batez bestekoarekin parekatzen lagundu nahi da.


Enkarterriko EPE osoko ikuspegiarekin egin da, eskualdeko garapen jasangarrian eta kalitatean eragina duten esparru handiak hartu ditu:



1. irudia: Eskualdeko Plan Estrategikoaren oinarriko esparru tematikoak

EPEa egiteko, ezartzeko eta jarraitzeko filosofia herritarren parte-hartze zabalak, lankidetzak publiko-pribatuak, hainbat mailatako lidergo instituzionalak eta eskualde-ikuspegiak markatzen dute.

EPEaren filosofia herritarren parte-hartze zabalak, lankidetzak publiko-pribatuak, hainbat mailatako lidergo instituzionalak eta eskualde-ikuspegiak markatzen dute




2. irudia: Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko elementu giltzarriak

1.3 Plana egiteko prozesuaren azalpena

Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko egoeraren diagnostikoa egin da, Eskualdeko erronkak identifikatu eta baliozkotu dira, sektoreko adituek parte hartzeko foroak egin dira, ezarri beharreko trakzio-proiektuei lehentasuna eman zaie eta diseinatu dira eta proiektu hauei buruz galdetu zaie herritarrei lankidetzarako tresna digital baten bidez.


Plana egiteko, gobernantza-eredu bat egin da hiru mailatan: talde motore bat, adituen foroak eta herritarren ekarpenak



Talde eragilean Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia, eskualdeko udalak eta Enkarterriko Mankomunitateak egon dira

3. irudia: Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko prozesua

Enkarterriko EPEa egiteko hiru mailako gobernantza eredu erabili da, talde eragile batek sustatu du eta Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, eskualdeko udalak eta Enkarterriko Mankomunitateak hartu dute parte; era berean, adituen foroaren lankidetzeta eta herritarren ekarpenak egon dira.



4. irudia: Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko gobernantza-eredua

Talde eragileak erakunde arteko lana egin du eta udalerrriak izan dira protagonista:

- Gauden abiapuntuaren ikuspegi adostua definitzeko.
- Erakunde guztietatik herritarrei erantzun osoa eta koherentea emateko.
- Lurraldera egokitutako planifikazioa eta proiektuak bermatzeko, erakunde mailan koordinatuak eta erronka eta behar jakinei erantzuten dietenak.
- Ahaleginak eta dinamikak lerrokatzeko, plana hobeto gauzatu eta inpaktu handiagoa izan dezan.

Eskualdeko Plan Estrategikoko ardatzen erronka nagusiak identifikatu eta talde eragileak erronka horiek baliozkotu ondoren, adituen foroak eratu ziren gai horien inguruan.

Prozesu honetan eratu diren adituen foroak, beraz, EPEaren garapenarekin eta eskualdean identifikatutako gaiekin zerikusia duten gai jakinen inguruko lanerako taldeak izan dira; eskualdeko eta Euskal Herriko ekosistemako eragile eta pertsona garrantzitsuak daude bertan, Planean gauzatu beharreko jardueren alderdi teknikoak sakontzeko.

Adituen foroen prozesu honetan 65 erakunde eta 100 aditu baino gehiago ibili dira, foro bakoitzeko arlo tematikoetan eta parte-hartze eta lankidetzaz publiko-pribatuko dinamika sortu da:

Adituen 7 foro egin dira eta 100 eragilek baino gehiagok hartu dute parte Planeko jarduketan alderdi teknikoaz sakonago aritzeko

1. foroa: Eskualdeko baliabideei balio erantsia emango dieten industria eta jarduera eraldatzaileak bultzatu (jarduera industrialak)

2. foroa: Eskualdeko baliabideei balio erantsia emango dieten industria eta jarduera eraldatzaileak bultzatu (basogintza eta nekazaritzako elikagaiak)

3. foroa: Turismoa dinamizatu aukera-sektore gisa eta eskualdearen iraunkortasunaren alde egin.

4. foroa: Enplegua eta prestakuntza

5. foroa: Eskualdeko errealitatera eta beharretara egokitutako gizarte- eta hirigintza-arloko esku-hartzea

6. foroa: Enpresak eskualdean atxikitzeko, garatzeko eta erakartzeko espazioak sortu

7. foroa: Mugikortasuna eta garraio jasangarria, barneko eta Bizkaiko gainerako lurraldeekiko kohesiorako elementu gisa

5. irudia: Egindako adituen foroak

*Herritarrak
Aktibatze
Prozesua indarrean
egongo da Plana
hedatzen den aldi
osoan*

Herritarren Aktibazio Prozesua hasteko moduan izan gara gizarteak parte hartzeko plataforma bati esker, lankidetzarako tresna digital bat erabili baitugu urrutze soziala gainditu ahal izateko; tresna horri esker, Enkarterriko herritarrek parte-hartze aktiboa izan dute, EPEa egiterakoan garatu daitezkeen jardueraz dituzten ideia partikularrak emnez eta diseinatutako proiektuen egokitasuna baloratu. EPEaren diseinuko etapa horretan hasi den arren prozesu hori, Planaren hedapen-aldi osoan indarrean egongo da, herritarrak informatuko ditu eta Enkarterriko herritar guztiek trakzio-proiektuen zehaztasunak definitzerakoan eta burutzerakoan parte hartze aktiboa izan ahal izango dute.

Herritarren aktibazio-prozesua artikulatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta eskualdeko udalik gehienek nahiz webgunea nahiz sare sozialetako kontuak erabili dituzte, haren berri emateko.

Panel horri esker, eskualdeko 1.600 herritarrek baino gehiagok prozesuaren berri izan dute zuzenean.

Planaren xedea eskualdea sustatzea denez, prozesu honetan hori indartzeko premisei jarraitu zaie, hala nola ikuspegi anitzeko lidergo instituzionala, lankidetzak publiko-pribatua eta herritarren parte-hartzea.

2 Eskualdearen osoko diagnostikoa

Kapitulu honetan eskualdearen diagnostikoa egiten da; testuinguruaren ikuspegi orokorretik abiatu eta bost eremuren berariazko azterketa egiten da jarraian: suspertze ekonomikoa, enplegua eta prestakuntza, gizarte-koheresia eta zerbitzu publikoak, hiri- eta ingurumen-eraberritzea eta lurraldea eta jasangarritasuna.

Ikuspegi orokorrari esker, Enkarterrik Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualde gisa duen rola testuinguratu ahal izango da; bost eremuren berariazko azterketak, aldiz, eskualdearen egoera eta giltzarri esanguratsuak ulertzeko balioko du. Azterketaren amaieran ondorio nagusien bilduma bat aurkeztuko da eremuaren arabera.

Enkarterriko eskualdean 11 udalerrri daude: Alonsotegi, Artzentales, Galdames, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

Eskualdean bi errealitate oso desberdin daude: Cadaguako Korridorearen inguruko udalerrriak daude batetik, eta, bestetik, landa eremukoak. Eskualde-mailan arazo berdinak dituzten arren, zona bakoitzaren berezitasunen ondorioz arazo horiei aurre egiteko modua desberdina da.

Landa-eremua da biztanleriarik txikieneko eremua ere (eskualdeko biztanleriaren % 22 eta biztanle zaharragoak), dentsitate baxuagoa du eta jaiotza-tasa txikiagoa ere bai, eta Cadagua inguruan baino langabezia-tasa txikiagoa izan arren, eskola-porrota altuagoa da, baita pertsonen batez besteko errenta ere:



Adierazlea	Landa-eremua	Cadagua ingurua	Bizkaiko batez b.
Biztanleria	22%	78%	-
Biztanleria-dentsitatea (bizt./km2)	62,5	190,4	518,6
Zahartzea	26%	22%	22,5%
Jaiotza-tasa	0,6%	0,8%	0,7%
Langabezia*	12,1%	13,5%	11,6%
Eskola-porrota	14%	12%	9,7%
Batez besteko jarduera-tasa**	38%	48%	56%
Batez besteko jarduera-tasa	16,1k€	17,1k€	19,8k€

(*) Udalerrri-mailako informazioa: iturriak, EUSTAT (18/12/31) eta Lanbide (20/01/30)
(**) Azken 10 urteetako batez besteko jarduera-tasa

6. irudia: Enkarterriko udalerrriak, zonaren arabera

Enkarterriko eskualdeak 35.104 biztanle ditu, hau da, Bizkaiko biztanleriaren % 3; Euskadiko guztizko biztanleriaren % 1,5 zuen gutxi gorabehera 2019an, % 49 gizonezkoak ziren eta % 51 emakumeak.

Gainera, 2001. urtetik aurrera eskualdeko populazioa % 7,3 hazi da (+2.361), hau da, Bizkaikoa baino askoz eboluzio handiagoa izan du, aldi horretan Bizkaikoak % 1,8ko hazkundera izan baitu.

Enkarterrin bi errealitate daude: Cadaguako Korridorearen inguruko udalerriena eta landa-eremukoena

Eskualdearen aktibo nagusiak baliabide naturalak dira, Bizkaiko baso-azaleraren % 20 du

Azalerari dagokionez, Enkarterriko eskualdeak 450,9 km²-ko azalera du, Bizkaiko azalera osoaren % 20,3 eta Euskadiko azalaren % 6,2.

Enkarterriko 26.014 hektareako baso-azalera Bizkaiko zuhaitz-azalera osoaren % 20 da eta eskualde osoko azalaren ia % 60 hartzen du; baliabide bereizgarri nagusietako bat da. Enkarterrin, azalera honen gehiengoa titulartasun publikokoa da.

2.1 Suspertze ekonomikoa


Atal honetan Enkarterriren egitura ekonomikoa aztertzen da, baita haren BEGd-k Bizkaia-erikiko eta Euskadirekiko duen pisua ere, eskualdeko ekonomian eta enpleguan pisu gehien duten sektoreak eta horien bilakaera identifikatuz, Bizkaian Enkarterriren espezializazioa zein eremutan dagoen identifikatu ahal izateko.

Enkarterriko sektore turistikoak ere aztertu da, aktibo nagusiak identifikatu dira eta sektorearen eboluzioa ikusi da enplegua eta enpresa turistikoak kontuan izanda.

Amaitzeko, enpresa-ehunaren osaera aztertu da eta enpresa-garapenerako dagoen tartea ere bai, Eskualdeko I+G+b ekosistema analizatzeaz gain.

2.1.1 Eskualdeko egitura ekonomikoa

Enkarterriren BEGd-k hazkunderako joera positiboa du 2014az geroztik. Baina ez du krisiaren aurreko maila berreskuratu, eta Bizkaikoa eta Euskadikoa baino hazkunde maila txikiagoa du.



7. irudia: BEGd-aren eboluzioa (ME arruntak oinarrizko prezioetan)¹

BEGd-aren % 68rekin, 2016an Enkarterriko egitura ekonomikoan zerbitzuen sektorea zen nagusi, nahiz eta Bizkaiko batez bestekoarekin alderatuz gero hirugarren sektoreak ez duen horrenbesteko pisua, industrialagoa den eta lehen sektoreak pisu handiagoa duen.

Enkarterriko ekonomia hazten ari den arren, Bizkaikoak eta Euskadikoak baino hazkunde motelagoa du

¹ Eskualdearen diagnostikoa egitean eskura dauden azkenengo datuak 2016koak dira.

Eskualdearen egitura ekonomikoan hirugarren sektoreak ez du horrenbesteko pisua, industrialagoa da eta lehen sektoreak Bizkaian baino pisu handiagoa du

Enkarterrin BEGd-k sektore bakoitzaren arabera izandako bilakaera Bizkaikoaren oso antzekoa izan da; hala ere, alde txiki batzuk daude zerbitzuen sektorean (-% 6), industriaren sektorean (+% 3) eta nekazaritzako elikagaienean (+% 2).

BEGd-aren araberako 10 sektore nagusiak Enkarterriko BEGd osoaren ia % 70era iritsi ziren 2016an. Horietatik hiruk soilik izan dute uzurtze esanguratsua 2008-2016 aldian: merkataritzak, eraikuntzak eta metalurgiak.



8. irudia: Enkarterriko sektoreen Top 10a BEGd-aren eta enpleguaren arabera eta horien bilakaera (2009-2018)

Bilakaerari dagokionez, eskualdeko lau jarduera-sektore handien egoera honako hau da:

- Zerbitzuen sektorea 2008an ekonomiaren erdia izatetik 2016an ia % 70 izatera igaro da.
- Eraikuntza 2008an ekonomiaren ia laurdena izatetik 2016an ia % 6 izatera igaro da.
- Industria eskualdeko ekonomiaren ia laurdena da, Bizkaian baino pisu handiagoa du. Gaur egun hain garrantzitsua ez izan arren, Bizkaian eta Euskadin izandakoa baino jaitziera txikiagoa izan du.
- Lehen sektoreak Bizkaian eta Euskadin baino pisu handiagoa du eskualdeko ekonomian. 2008tik lehen sektorearen pisua hazi egin da, Bizkaian eta Euskadin baino gehiago.

Erauzketa-industriak, batez ere, lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza) eta zuraren sektorea (espezializazio pixka bat duen altzarigintza-sektorearekin lotuta) dira Enkarterrin Bizkaian baino espezializazio handiagoa duten industria-jarduera nagusiak, oinarrizko prezioetako BEGd-ari dagokionez.

	Azpi-espezializazio esanguratsua (<0,5)	Espezializazio txikiagoa	Espezializazio berdina (1)	Espezializazio handiagoa	Espezializazio esanguratsua (> 2)
Lehen sektorea					• Agricultura, ganaderia y pesca
Industria	• Industria kimikoa/produktu farmazeutikoak	• Kautxua, plastikoa eta beste ez-metalikoak. • Makinaria eta ekipoa	• Elikagaien industriak, edariak eta tabakoa • Metalurgia eta produktu metalikoak	• Altzariak eta beste manufakturrak • Ur eta saneamendu hornidura	• Erauzketa-industria • Ehungintza, jantzigintza, narraua eta oinetakoak • Zura, papera eta arte grafikoak
Eraikuntza	Balio erantsi handiko zerbitzu batzuetan espezializazio erlatibo txikiagoa du eskualdeak			Eraikuntza	Erauzketa-jardueren espezializazio handia nabarmentzen da. Baina zuraren/paperaren industriarena eta osasun zerbitzuena ere
Zerbitzuak	• Edizioa, irudia, irratia eta telebista • Aholkularitza eta jarduerak teknikoak • Ikerketa eta garapena • Informatika • Osasun arloko jarduerak	• Merkataritza; ibilgailuen konponketa • Telekomunikazioak • Finantza-jarduerak eta aseguruak • Beste jarduerak profesional batzuk • Aisiako eta kulturako jarduerak • Zerbitzu osagarriak	• Garraioa eta biltegiatzea • Ostalaritza • Beste zerbitzu batzuk	• Higiezin arloko jarduerak • Administrazio publikoa eta defentsa • Hezkuntza • Etxeetako jarduerak	• Gizarte zerbitzuetako jarduerak

$$\text{Espezializazioa} = \frac{BEGd_{\text{Enkarterriko adarra}}}{BEGd_{\text{Enkarterriko gutzitzaok}}} \div \frac{BEGd_{\text{Bizkaiko adarra}}}{BEGd_{\text{Bizkaiko gutzitzaok}}}$$

1. taula: Sektoreen araberako espezializazio-maila Enkarterrin

Enkarterri erauzketa-industrietan, lehen sektorean eta zurarenean espezializatu da...

... produktu informatikoak eta elektronikoak, sektore energetikoa eta gizarte zerbitzuen jarduerak ere nabarmentzen dira

Eskualdeak espezializazio nabarmen bat ere badu, batez ere eskaintzen dituzten aukerengatik, produktu informatiko eta elektronikoetan, energia-sektorean eta gizarte-zerbitzuetako jardueretan.

Enpleguari dagokionez, Enkarterrik Bizkaiko enpleguaren ehuneko bera sortu zuen 2018an, 2008ko datuekin alderatuta (% 1,9).

Enplegu gehien sortzen duen sektorea merkataritza eta ibilgailuen konponketa izan arren (% 14,3), eskualdean duten garrantziari dagokionez bilakaera positiboena izan duten sektoreak Hezkuntza (% 10), Nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza (% 9) eta zerbitzu osagarriak (% 9) dira.

2.1.2 Enpresa-sarea

Establezimendu-kopuruari dagokionez, Enkarterrin 2018an guztira 2.813 daude, batez beste 82 establezimendu 1.000 biztanleko, Bizkaiko 79 establezimenduen eta Euskadiko 80 establezimenduen antzeko tasa du.

Nahiz eta 2008an Enkarterrik 1.000 biztanleko Bizkaian baino establezimendu gutxiago izan, kopuru hori nahiko konstante mantendu da, eta Bizkaian, aldiz, % 20 jaitsi da. Enkarterrin 2018an hazkunde handiena izan duen sektorea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Ehiza izan da (+% 33), Bizkaiak izan duen joeraren oso bestelakoa (-% 8).

Enpresen tamainari dagokionez, Enkarterriko enpresa-sarean ez da 250 langile baino gehiagoko enpresarik identifikatu 2019an, eta 50 pertsonatik gorako 9 enpresa baino ez daude (Winoa, P4Q, Iris, Mondi, Alfus, Urbegi Taldea, Euskotelecom eta Lucart). 10 langile edo gutxiagoko enpresak eskualdeko enpresa guztien % 93 dira.

Horrez gain, Enkarterrik atzerriko inbertsio zuzeneko 4 enpresa ditu (Winoa, Mondi, Hanson eta Lucart), hau da, Bizkaikoen % 1,5.

Ekintzailtza-mailari dagokionez, 2018an Enkarterriko ekintzailtza-tasa % 7,3koa izan zen, Bizkaiko (% 8,1) eta Euskadiko (% 7,8) batez bestekoa baino txikiagoa.

2009an, Enkarterriko ekintzailtza-tasa % 7,7koa zen, eta Bizkaiko batez bestekoaren gainetik zegoen (% 7,0).

Nabarmenezkoa da eskualde-mailako enpresa-elkarte bat dagoela, Enkarterri Group. Elkarte horrek 80 enpresa bazkide baino gehiago ditu, eta, beste ekimen batzuen artean, Enkarterri Green zigilua garatu du (zigilu horrek eskualdeko enpresei Enpresen Gizarte Erantzukizuna aitortzen die, eta haien lehiakortasuna bultzatzen du).

2.1.3 Jarduera ekonomikoetarako guneak

Enkarterrin, 2018an, jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzorua % 0,43 dago; proportzio hori ia 8 aldiz txikiagoa da Bizkaian baino (% 2,36). Hala ere, 2010etik 2018ra bitartean, Enkarterrik +% 0,9ko urteko hazkundera izan du jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruan, Bizkaiko +% 0,6ko igoera baino pixka bat handiagoa.

Enkarterrik 2019an 20 industrialde zituen guztira (2M m²), okupazio-maila handiarekin (% 96 eta % 98 artekoa), eta horrek mugatu egin dezake eskualdeko trakzio-enpresen hazkundera, bai eta enpresa berrien erakarpena ere.

Enkarterriko enpresa-egitura nagusia mikro enpresena eta enpresa txikiena da

Eskualdeko enpresa-elkarte bat dago, Enkarterri Group, oso aktiboa eskualdean

Industria-lurzoru gutxi dago Enkarterrin, baina industria-jarduera garatzeko potentziala duten eremuak badaude

Hala ere, industria-jarduera garatzeko potentziala duten zonak ditu Enkarterrik, hala nola Orbijana (Gueñes), 200.000 m² dituen, garai bateko Arkemaren kokalekua, 40.000 m² erabilgarri dituen, eta Montealegre, 250.000 m² inguru dituen (biak Alonsotegin).

Gainera, iraganeko jardueraren ondorioz, Enkarterrik 2 milioi m² lurzoru kutsatu zeuzkan 2019an; Bizkaiko kutsatu guztiaren % 4.


Kutsatutako lurzoruaren aprobetxamendu potentzialak agerian uzten du eskualdeak hobetzeko ahalmen handia duela, dauden guneak eta industrialdeak berreskuratzeari dagokionez.

2.1.4 I+G+b sarea

Enpresen intentsitate teknologikoari dagokionez, Enkarterriko manufaktura-enpresen ia erdiak intentsitate teknologiko baxuko sektoreetakoak dira (% 65) 2018an, Bizkaiko eta Euskadiko % 37 baino gehiago. Enkarterrin teknologia-intentsitate handia duten sektoreen pisua Bizkaikoaren antzekoa da, baina, Bizkaian ez bezala, haren pisua bikoiztu egin da 2009az geroztik.

2017an Enkarterriko I+G gastua 2008koa baino % 50 baino handiagoa da, eta urteko hazkunde-tasa Bizkaikoa eta Euskadikoa baino askoz handiagoa da. Eskualdeak 2008an I+G arloan % 0,10eko ahalegina egin zuen BPGarekin alderatuz gero, eta ia bikoitza egin du 2017an (% 0,17). Bizkaiari dagokionez, tartea murriztu bada ere, Enkarterriren ahalegina 10 aldiz txikiagoa da oraindik, eta oso enpresa gutxitan kontzentratzen da.

Eskualdean ikerketa eta berrikuntzaren arloko jarduera gutxi dago



9. irudia: I+G arloko gastuaren bilakaera (% BPG), eta Bizkaiarekin eta Euskadirekin alderatzea

Ez dago ZTBESko agenterik

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari dagokionez, Enkarterrik ez du ZTBESko eragilerik, eta, beraz, interesgarria izango litzateke eskualdeko ekimenak identifikatzea eta balioestea, eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza-eragile eta ZTBES hedatzeko eragile bihur daitezkeenak.

2.2 Enplegua eta Prestakuntza

Atal honetan Enkarterriren zeregina aztertzen da enplegu-adierazle nagusietan (langabezia, iraupen luzeko langabezia, langabetuaren profila eta jarduera-tasa), baita jasotako batez

besteko errenta pertsonala eta eskualdeko langileen jatorria ere; horietan guztietan aldeak daude Bizkaia eta Euskadirekiko.

Enkarterriko biztanleriaren ikasketa-maila ere aztertzen da, bai eta haren bilakaera, eskola-uzte tasak eta prestakuntza-eskaintza ere.

Enpleguaren eta prestakuntzaren eremuan, eskualdearen gizarte-koehesioaren osagaien ez ezik, estatistikoki ere aurki daitezke genero-arrakalaren adierazle nagusiak, eta aipatutako adierazle gehienetan ikusten dira genero-desberdintasunak: langabezian emakume gehiago daude, soldata txikiagoak dituzte, eta lehen mailako ikasketak eta prestakuntza-maila apalagoa dituzten emakumeak gehiago dira. Horri guztiari gehitu behar zaio emakumeak direla, batez ere, Eskualdean DSBEaren bidez laguntza ekonomikoak eskatzera jotzen dutenak. Horrek esan nahi du mekanismoak bilatu behar direla genero-arrakala hori murrizteko, eta ez soilik arlo ekonomikoan, baita prestakuntzan ere.


Hala ere, esan beharra dago datu positiboak daudela, hala nola emakumeen abandonu-tasa txikiagoa eta Enkarterrin unibertsitate-prestakuntza duten emakumeen kopuruaren hazkunde handiagoa.

2.2.1 Enplegu-mailako adierazle nagusiak

Enkarterriko langabezia-tasa % 13,3koa izan zen 2019an, Bizkaiko batez bestekoa baino 1,6 puntu handiagoa eta Euskadikoa baino 2,6 handiagoa. Dena dela, eskualdeko langabezia txikitzen ari da, Bizkaikoa eta Euskadikoa bezala.

Bizkaiko eta Euskadiko langabezia-tasa baino handiagoa duen arren, eskualdean langabezia apur bat murrizteko joera dago

Enkarterriko, Bizkaiko eta Euskadiko langabezia-tasa (langabezian dagoen biztanleriaren %, 2007-2019)



HKUT 11-19

Enkarterri	-2,4%
Bizkaia	-2,7%
Euskadi	-2,6%

Langabearen profila honakoa da:

- % 67k ez du bigarren hezkuntza gairiditu
- % 54 emakumezkoa da
- % 49k 45 urte baino gehiago ditu
- Profil hau berdina da Bizkaia osoan.

Udalerrien arabera zehaztasunak

		%	Enkarterri ko bb	Bizkaiko bb
Cadagua Ingurua	Alonsotegi	13,8%	●	●
	Balmaseda	15,9%	●	●
	Gordexola	9,0%	●	●
	Gueñes	12,8%	●	●
	Zalla	13,0%	●	●
Cadagua	13,5%	●	●	
Landa eremua	Artzentales	13,7%	●	●
	Galdames	10,7%	●	●
	Karrantza	15,0%	●	●
	Lanestosa	13,3%	●	●
	Sopuerta	10,1%	●	●
	Turtzioz	12,6%	●	●
L. eremua	12,4%	●	●	

Adierazlea Langabezia-tasa = Biztanleria langabetua/Biztanleria aktiboa guztira


10. irudia: Langabezia-tasaren bilakaera Enkarterrin

Emakumeen langabezia-tasa % 17,9koa zen 2018an, gizonen langabezia-tasa baino handiagoa (% 12,6); alde hori handitu egin da 2015az geroztik, gizonen langabezia-tasa bizkorrago jaisten hasi baitzen orduan.

Enkarterriko iraupen luzeko langabezia-tasak hazkunde handia izan zuen 2008tik 2014ra bitartean, harik eta % 7,6ra iritsi zen arte, baina harrezkero beherantz egin du pixkanaka, 2018an % 6,2ra iritsi arte: Enkarterriko langabezia osoaren % 44 iraupen luzekoa da, 1.032 lagun guztira. Udalerrriaren ikuspegitik, iraupen luzeko langabezia-tasa handiena duten udalerrriak Balmaseda (% 7,4), Karrantza (% 7,2) eta Alonsotegi (% 7,0) dira.

Iraupen luzeko langabezia-tasa ere, 2008ko krisiaren ondoren hazkunde handia izan duena, Bizkaian eta Euskadin baino handiagoa da

Enkarterriko, Bizkaiko eta Euskadiko iraupen luzeko langabezia-tasa (langabezian dagoen biztanleriaren %, 2005-2018)



Udalerrien araberako zehaztasunak					
	Pob.	%	Enkarterri ko bb	Bizkaiko bb	
Cadagua Ingurua	Alonsotegi	99	7,0%	●	●
	Balmaseda	269	7,4%	●	●
	Gordexola	30	3,5%	●	●
	Gueñes	192	5,8%	●	●
	Zalla	239	5,6%	●	●
Cadagua	828	6,2%	●	●	
Landa eremua	Artzentales	21	6,1%	●	●
	Galdames	23	5,6%	●	●
	Karrantza	90	7,2%	●	●
	Lanestosa	5	4,8%	●	●
	Sopuerta	49	4,0%	●	●
	Turtzioz	16	6,3%	●	●
	L. eremua	204	5,7%	●	●

11. irudia: Iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaera Enkarterrin

Enkarterriko langabearen profilari erreparatuz gero, Bizkaiko profilaren antzekoa da: % 49 45 urte baino gehiagokoa da, % 54 emakumea da eta % 67k ez ditu bigarren mailako ikasketak gainditu.


Eskualdeko jarduera-tasari dagokionez, % 51koa izan zen 2018an, Bizkaiko (% 56) eta Euskadiko (% 57) tasa baino txikiagoa, 5 puntu azpitik.

2001ean Enkarterriko jarduera-tasa Bizkaikoa baino 10 puntu baxuagoa izan arren, 2006an alde hori 5 puntura jaitsi zen, eta ia konstante mantendu zen 2018ra arte. Jarduera-tasarik handiena duten udalerriak Gueñes (% 58), Alonsotegi (% 57), Gordexola (% 57) eta Zalla (% 57) dira.

2.2.2 Jasotako batez besteko errenta

Batez besteko errenta pertsonalari dagokionez, Enkarterri Bizkaiko edo Euskadiko mailen % 18 azpitik mantendu da 2001-2016 aldian.

Enkarterriko, Bizkaiko eta Euskadiko batez besteko errenta pertsonala (eurotan, 2001-2016)




Udalerrien araberako zehaztasunak				
	k€	Enkarterri ko bb	Bizkaiko bb	
Cadagua Ingurua	Alonsotegi	16,7k€	●	●
	Balmaseda	15,7k€	●	●
	Gordexola	21,3k€	●	●
	Gueñes	17,2k€	●	●
	Zalla	17,4k€	●	●
Cadagua	17,1k€	●	●	
Landa eremua	Artzentales	16,5k€	●	●
	Galdames	19,1k€	●	●
	Karrantza	13,4k€	●	●
	Lanestosa	13,5k€	●	●
	Sopuerta	18,1k€	●	●
	Turtzioz	15,5k€	●	●
	L. eremua	16,1k€	●	●

12. irudia: Batez besteko errenta pertsonalaren tasaren bilakaera Enkarterrin

Enkarterriko batez besteko errenta 2009tik urteko % 0,3ko errotioan hazi den arren, hazkunde hori apur bat txikiagoa da Bizkaikoa eta Euskadikoa baino, azken horiek +% 0,4koa eta +% 0,6koa izan baitira, hurrenez hurren.

Enkarterriko batez besteko errenta pertsonala baino handiagoa duten udalerriak Gordexola (21,3k€), Galdames (19,1k€), Zalla (17,4k€) eta Gueñes (17,2k€) dira. Aitzitik, batez besteko errenta pertsonal txikiena duten udalerriak Karrantza (13,4k€) eta Lanestosa (13,5k€) dira.



13. irudia: Bizkaiko batez besteko errenta pertsonalaren maila udalerrika

Emakumeen eta gizonezkoen arteko aldeari dagokionez, Enkarterrin emakumeek jasotzen duten lan-errenta % 43 txikiagoa da gizonek jasotzen dutena baino; alde hori apur bat handiagoa da Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoa baino (-% 40).

2.2.3 Langileen jatorria

Enkarterriko biztanleria landunaren % 64k (8.814 lagunek) eskualdetik kanpo egiten du lan 2016an, eta lan-merkatuan lehiari dabil gainerako lurraldeekin.

Halaber, azken urteetako joerak enpleguan mugikortasun handiagoa dagoela adierazten du, eta, beraz, Enkarterriko biztanleria landunaren ehuneko handiago batek eskualdetik kanpo lan egiten duela.

Urte horretan bertan Enkarterrin lan egiten dutenei dagokienez, eskualdean sortutako enpleguaren % 37 eskualdetik kanpo etorritakoek betetzen dute.


2011tik eskualdetik kanpo lan egitera ateratzen den Enkarterriko biztanleriaren ehunekoa handitzen ari bada ere, eskualdean sortu eta beste leku batzuetatik etorritako pertsonak betetzen duten enpleguaren ehunekoa ere handiagoa da.

2.2.4 Enkarterriko biztanleriaren heziketa-maila

Enkarterrin 2018an biztanleriaren % 18,8k unibertsitate mailako ikasketak zituen, Bizkaia eta Euskadi osokoaren % 26,6k baino gutxiagok.

Enkarterriko biztanleria landunaren ehuneko handi batek eskualdetik kanpo egiten du lan, eta joera hori hazten ari da

Enkarterrin, unibertsitate-ikasketak dituen biztanleria-tasa Bizkaia eta Euskadikoa baino baxuagoa da, eta Lanbide Heziketa finkatuagatik nabarmentzen da



14. irudia: Enkarterriko biztanleriaren kualifikazio maila

Eskola uztearen tasa murrizten ari bada ere, Bizkaikoaren gainetik jarraitzen du

Bizkaiarekin alderatuz gero, Enkaterri Lanbide Heziketa egindako biztanleriaren % 4,6 gehiago du. Joera positiboa da; izan ere, 2010etik 2018ra handitu egin da unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoa (% 35,6tik % 40,8ra).



Genero-ikuspegitik, unibertsitate-ikasketak dituzten Enkaterriko emakumeen prestakuntzak gora egin du, 2010ean % 13,2 izatetik 2018an % 16,2 izatera igaro baita (+3.1 puntu p.), unibertsitate-ikasketak dituzten gizonen hazkundearekin alderatuta, % 8,8tik % 10,2ra aldi berean (+1,4 puntu p.).

Enkaterriko eskola uzte goiztiarraren tasak beherazko joera du: 2018an % 12,2koa zen (219 lagun), baina Bizkaian baino handiagoa (% 9,7).

Udalerrien ikuspegitik, Galdamesko udalerriak soilik du eskola uztearen tasa (% 4) Bizkaiko batez bestekoa baino txikiagoa. Aitzitik, eskola-uztearen tasa handiena duten udalerriak Lanestosa (% 35), Turtzioz (% 17) eta Karrantza (% 15,8) dira.

2018ko eskola-uztearen tasa gizonezkoetan (% 13,7) emakumeetan baino ia 3 puntu handiagoa da (% 10,6).

Enkaterri eta Bizkaiko eskola uztearen tasa (18-24 urte arteko biztanleria ez ikaslearen %, 2006-2018)



		Udalerrien arabera zehaztasunak		
		%	Enkaterri ko bb	Bizkaia ko bb
Cadagua Ingurua	Alonsotegi	14,2%	●	●
	Balmaseda	11,3%	●	●
	Gordexola	15,2%	●	●
	Gueñes	13,2%	●	●
	Zalla	10,3%	●	●
	Cadagua	12,0%	●	●
Landa eremua	Artzentales	13,3%	●	●
	Galdames	4,0%	●	●
	Karrantza	15,8%	●	●
	Lanestosa	35,7%	●	●
	Sopuerta	11,0%	●	●
	Turtzioz	16,7%	●	●
	L. eremua	13,2%	●	●

15. irudia: Eskola uztearen tasa Enkaterri eta Bizkaian

Prestakuntza-eskaintzari dagokionez, Enkaterri LHko 4 zentro ditu, Bizkaiko osokoaren % 4, prestakuntza-eskaintza zerbitzuen sektorerara bideratuagoa dago (% 63) industrialera (% 37) baino. Enkaterri dauden lanbide-heziketako ikastetxe guztiak pribatuak dira. Bestalde, ez da prestakuntzarik eskaintzen lehen sektoreko lanbide-profilentzat.

Enkaterri Behargintza zentro bat du, Enkaterri elkartearen mendekoa, eta horrek ere prestakuntza-jarduerak egiten ditu.

2.3 Gizarte Kohesioa eta Zerbitzu Publikoak

Atal honetan eskualdeko adierazle demografiko nagusiak aztertu dira: biztanleria, jaiotza- eta heriotza-tasa, 65 urtetik gorako biztanleria, immigrazioa eta eskualdeko migrazio-saldoa, zaugarritasun maila eta pobrezia-arriskuan dagoen biztanleria, DSBEa jasotzen duen biztanleriaren tasa eta Enkaterriko gizarte-ekonomiako sektorearen egitura.


Enkarterriko biztanleria ~% 7 hazi da azken 20 urtean

2.3.1 Adierazle demografiko nagusiak

2001. urteaz geroztik, Enkarterriko biztanleria +% 7,3 hazi da, eta guztira 34.763 biztanle izatera iritsi da. Hazkunde hori Bizkaia osoko +% 1,8koa baino handiagoa izan da. Eskualdeko biztanleria Bizkaiko biztanleria osoaren % 3 da; beraz, 2001az geroztik izan duen hazkundeak % 0,2ko eragina izan du lurralde historikoan.

Udalerriei dagokienez, igoera handienak Gordexolan (+% 17,7), Gueñesen (+% 13,4) eta Balmasedan (+% 8,9) izan dira; aldiz, biztanleria-beherakada handiena izan duten udalerriak Turtzioz (-% 6,7), Lanestosa (-% 3,2) eta Karrantza (-% 3,2) izan dira.

Biztanleriaren eboluzioa Enkarterrin eta Bizkaian (biztanle-kop., 2001-2019)



Udalerrien araberako zehaztasunak			
	%	Enkarterriko bb	
Cadagua ingurua	Alonsotegi	-0,2%	●
	Balmaseda	8,9%	●
	Gordexola	17,7%	●
	Gueñes	13,4%	●
	Zalla	8,8%	●
Cadagua	9,4%	●	
Landa eremua	Artzentales	4,8%	●
	Galdames	-0,1%	●
	Karrantza	-3,2%	●
	Lanestosa	-3,2%	●
	Sopuerta	5,8%	●
	Turtzioz	-6,7%	●
	L. eremua	0,4%	●

16. irudia: Biztanleriaren bilakaera Enkarterrin eta Bizkaian

Enkarterriko jaiotza-tasari dagokionez, jaitsi egin da, eta % 0,8koa izan da 2018an (262 jaiotza), Bizkaian eta Euskadin baino pixka bat handiagoa (% 0,7).

2008. urtean lortu zuen maximoa (% 1,0), 329 jaiotzarekin, baina harrez gero Enkarterriko jaiotza-tasa urteko -% 2,3ko erritmoan jaitsi da, Euskadin (-% 2,8) eta Bizkaian (-% 3,1) baino erritmo txikiagoan, eta % 0,8an kokatu da (262 jaiotza).

Bestalde, 2018an Enkarterriko heriotza-tasa (% 1,1) Bizkaikoaren eta Euskadikoaren antzekoa zen (% 1,0), eta mantentzeko joera duela dirudi, 2015ean goranzko joera izan zuen arren (+74). Enkarterrin 384 heriotza erregistratu ziren 2018an, hau da, Bizkaiko heriotza guztien % 3,2 (11.950).

Heriotza-tasa handiena duten udalerriak Lanestosa (% 2,2), Sopuerta (% 2,0) eta Turtzioz (% 1,5) dira.


Enkarterrik 65 urtetik gorako biztanleen % 21,6 ditu, Bizkaiko % 22,5 baino ia puntu bat gutxiago.

2010. urteaz geroztik, ehunekoak gora egin du Enkarterrin, urteko +% 1,1eko erritmoan, hau da, Bizkaiko +% 1,5 eta Euskadiko +% 1,8 baino erritmo txikiagoan. Zehazki, Enkarterrin 65 urtetik gorako biztanleak 7.917 dira, hau da, Bizkaiko adin-tarte horretako biztanleria osoaren % 3 gutxi gorabehera (256.276).

Landa-eremuko udalerrietan, 65 urtetik gorako biztanleen tasa % 26ra igo da; are gehiago, Karrantzan, esaterako, % 28ra hurbildu da. Cadagua inguruko udalerriei dagokienez, Gueñes (% 19,7) eta Zalla (% 19,3) udalerrietan dago 65 urtetik gorako biztanleriaren ehuneko txikiena.

Eskualdean 65 urtetik gorako biztanleriaren ehuneko handia dago, batez ere landa-eremuan

>65 urtez gorako biztanleriaren ehunekoa Enkarterrin, Bizkaian eta Euskadin (biztanleriaren guztikoaren %, 2001-2018)



HKUT 10-18

Enkarterri 1,1%
Bizkaia 1,5%
Euskadi 1,8%

Enkarterrin 65 urtez azpikoak 7.917 lagun dira, hau da, Bizkaiko adin tarte horretako guztizkoaren (256.276 lagun) % 3 gutxi gorabehera

Udalerrien arabera zehaztasunak				
		%	Enkarterri ko bb	Bizkaiko bb
Cadagua ingurua	Alonsotegi	22,9%	●	●
	Balmaseda	23,9%	●	●
	Gordexola	22,2%	●	●
	Gueñes	20,8%	●	●
	Zalla	20,8%	●	●
Cadagua	22,0%	●	●	
Landa eremua	Artzentales	24,2%	●	●
	Galdames	24,5%	●	●
	Karrantza	29,1%	●	●
	Lanestosa	24,5%	●	●
	Sopuerta	23,6%	●	●
	Turtzioz	26,6%	●	●
	Z. Rural	26,0%	●	●

17. irudia: 65 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera Enkarterrin eta Bizkaian

2.3.2 Immigrazioa eta migrazio-saldoa

Enkarterriko migrazio-saldok biztanleria-irteerak baino sarrera gehiago ditu

Enkarterrik, 2019an, etorkinen % 8,1 zituen, Bizkaiko % 9,5 edo Euskadiko % 10,2 baino pixka bat gutxiago, 2.822 pertsona guztira, hau da, Bizkaiko etorkin guztien % 2,6, biztanleriaren % 3 baino gutxiago.

Enkarterriko migrazio-saldo garbian, 2013-2017 aldiko sarrera-kopurua biztanleria-irteerena baino pixka bat handiagoa da, eta nabarmenagoa da alde hori prestakuntza-maila oinarritzkoenetan.

2.3.3 Pobrezia eta laguntzak

Eskualdean pobrezia-arriskuan dagoen biztanleriaren tasa Bizkaikoa baino % 50 handiagoa da, baina DSBEa jasotzen duen biztanleria aktiboari dagokionez berdina da

Batez beste, pobrezia-arriskuan dauden Enkarterriko biztanleen tasa (% 5,4) Bizkaikoa (% 3,7) baino ia % 50 handiagoa da. Batez besteko errenta pertsonalarekin bezala, Gordexolako udalerririk soilik du Bizkaiko batez bestekoa baino datu positiboagoa.

Biztanleria kaltebera izanik, Enkarterriko biztanleria aktiboaren % 6,6k DSBEa jasotzen zuen 2018an, Bizkaiko batez bestekoak bezala.

Enkarterrin diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen pertsonaren profila hau da: % 55 emakumeak dira, % 64k ez ditu bigarren mailako ikasketak gainditu eta % 58k 45 urte baino gehiago ditu. Hartzailearen profil hori antzekoa da Bizkaia osoan, nahiz eta Enkarterrin 35 urtetik beherako hartzaileen taldea -% 5 txikiagoa izan.

Bizkaiaren egoera berean egon arren, 2014an Bizkaiak % 7,2ko zifra zuen eta gaur egungo % 6,6ra jaistera lortu du; Enkarterri, aldiz, egonkor mantendu da kopuru horretan.

Genero-ikuspegiari dagokionez, DSBEa jasotzen duten emakumeen kopurua (694) gizonena (572) baino % 21 handiagoa da, eta Enkarterrin DSBEa jasotzen duten pertsona guztien % 55 da. Aldea pixka bat handiagoa da Cadagua aldean, baina esan beharra dago DSBEa jasotzen duten emakumeen kopuruak behera egin duela 2014tik, urtean -% 3ko erritmoan, gizonen -% 0,7ko erritmoa baino handiagoan.

DSBEa jasotzen duen emakume gehiago egotearen arrazoia hauxe da: Enkarterrin emakumeek jasotzen duten lan-errenta % 43 txikiagoa da gizonen jasotzen dutena baino, Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoa (% 40) baino alde apur bat handiagoa.

2014tik aurrera, Enkarterri eskualdeak hobera egin du aztertutako zenbait adierazletan. Hala ere, oraindik ere Bizkaia eta Euskadik baino adierazle okerragoak ditu diru-sarrerei, pobrezia erlatiboaren arriskuari eta benetako ongizaterik ezari dagokienez: Enkarterriko biztanleen % 8,6k ez dute baliabide ekonomiko nahikorik oinarritzko premien estaldurari modu erregularrean heltzeko, bereziki elikadura-, etxebizitza- eta oinetako-gastuei dagokienez.


Enkarterriko gizarte-ekonomiak Bizkaikoak baino pisu handiagoa du enpresei eta enpleguari dagokienez

2.3.4 Gizarte-ekonomia

Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legearen arabera, gizarte-ekonomian biltzen dira interes orokor ekonomikoa edo soziala edo biak bideratzeko erakundeek eremu pribatuan gauzatutako ekonomia- eta enpresa-jarduerak. Honako hauek dira enpresa-multzo horren partaideak: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak, mutualitateak, enplegu-zentro bereziak, laneratzeko enpresak, arrantzaleen kofradiak, elkarteak eta fundazioak.

2018an, Enkarterriko enplegu osoaren % 5,3 gizarte-ekonomiarekin lotuta zegoen, Bizkaiko batez besteko % 5,1 baino apur bat gehiago. Gizarte-ekonomiarekin lotutako enpleguaren pisua nahiko egonkor mantendu da 2009 eta 2016 artean, eta 2016-2018 aldian pixka bat igo da, % 4,6tik % 5,3ra.

Halaber, Enkarterriko gizarte-ekonomiari lotutako enpresak guztizkoaren % 1,9 ziren 2018an, Bizkaiko % 1,7ren eta Euskadiko % 2 ingururen gainerik.



18. irudia: Gizarte-ekonomiari lotutako enpresen ehunekoaren bilakaera Enkarterrin, Bizkaian eta Euskadin

Eskualdean, gizarte-ekonomiarekin lotutako establezimenduen pisua handiagoa da Bizkaian baino, baina txikiagoa Euskadin baino. Hala ere, 2009an gizarte-ekonomiari lotutako enpresen pisua Bizkaikoa baino +0,6 portzentaje-puntu handiagoa bazen ere, 2018an alde hori heren batera jaitsi da (+% 0,2).

2.4 Hiri eta Ingurumen Biziberritzea

2.4.1 Etxebizitza

Atal honetan Enkarterriko etxebizitzaren merkaturak aztertzen da, horien eskaera eta batez besteko antzinatasuna, irisgarritasuna, tipologia eta neurria kontuan hartuta, eta udalerrien arteko aldeak identifikatzen dira.

Enkarterrin, 2018an, Etxebiden 29 eskaera egin dira mila biztanleko, hau da, Bizkaian (45) baino ia % 40 gutxiago.

Enkarterrin Etxebideko etxebizitzaren eskaera txikia dago

Alonsotegi (40 eskaera) eta Gordexola (39 eskaera) dira Etxebiden etxebizitza-eskaera handiena duten udalerrriak, eta Turtzioz (10 eskaera), berriz, eskaera txikiena duen udalerrria.

Bestalde, Enkarterriko etxebizitzek batez beste 50 urte zituzten 2018an, Bizkaiko 46 urteak eta Euskadiko 45ak baino gehiago.

Etxebizitzaren antzinatasuna handia da, batez ere landa-eremuan

Zehazki, etxebizitzaren batez besteko adin handiena duten Enkarterriko udalerrriak Galdames (73 urte), Artzentales (71) eta Karrantza (66) dira. Aldiz, Zallan (42), Gueñesen (45) eta Balmasedan (47) etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna eskualdekoa baino txikiagoa da.

Enkarterriko etxebizitzaren irisgarritasunari dagokionez, 2018an etxebizitzaren % 36k igogailua zuen, Bizkaiko etxebizitzaren % 68ren oso azpitik, Enkarterriko etxebizitza-motak baldintzatuta, ziurrenik.

Logikoa denez, eskualdeko zenbait udalerritan (Artzentales eta Turtzioz, kasu honetan) igogailua duten etxebizitzaren ehunekoa % 1 baino txikiagoa da.

Neurriari dagokionez, Enkarterriko etxebizitzaren pertsonako batez besteko neurria 2001etik 2018ra bitartean Bizkaian baino +% 10 handiagoa izan da.

Udalerrri-mailan alde handiak daude Bizkaiko batez bestekoarekin alderatuta; esaterako, Lanestosa eta Karrantza +% 50 gorago daude, neurri handi batean baserriak duen protagonismoagatik. Aldiz, beste udalerrri batzuek, hala nola Alonsotegik (42,5 m²), Zallak (44,1 m²) eta Gueñesek (44,1 m²), Bizkaiko batez bestekoa baino balio txikiagoak dituzte.


2.4.2 Hiri-kalteberatasuna

Eskualdeko 7.000 biztanle inguru kalteberatasun oso altuko edo ertain-altuko errolda-sekzioetan dago

Enkarterriko 2.000 biztanle inguru ditu Eusko Jaurlaritzak kalteberatasun oso handikotzat jotako errolda-sekzioetan, Cercamar eta El Calero auzoetan (Karrantza) eta Zaramillon eta San Pedron (Gueñes). Gainera, 5.000 biztanle inguru ditu, kalteberatasun ertain-altuko errolda-sekzioetan, Gueñes, Sopuerta eta Karrantzako auzoak barne.

Azalpenari dagokionez, eremu kalteberaren karakterizazioa 65 aldagaitatik abiatuta egiten da, 5 dimentsiotan multzokatuta: soziala, bizigarritasuna, irisgarritasuna, egonkortasuna eta efizientzia energetikoa.

Enkarterriko kalteberatasun oso handiko errolda-sekzioak, Eusko Jaurlaritzako inbentarioaren arabera




19. irudia: Enkarterriko errolda-sekzioak, kalteberatasun oso altuko edo ertain-altukoak

2.4.3 Sektore turistikoa Enkarterrin

Enkarterrik askotariko aktibo turistikoak ditu naturari, kulturari, historiari eta industria-tradizioari lotuta

Turismo-sektorerako modu berezian hurbildu behar da, sektore horrek lurralde-garapenerako duen garrantzia kontuan hartuta; izan ere, enpleguak eta jarduera ekonomikoa sortzen dituen sektorea izateaz gain, eragin biderkatzailea du eskualdean indarra duten beste sektore batzuetan, antzeko sektoreetan eta eskualdean dagoen azpiegituran eragiten baitu.

Gainera, sektore turistikoa bereziki garrantzitsua da Enkarterrin, aktibo ugari baititu, batez ere landa- eta ingurumen-eremuan; izan ere, eskualde horrek erakargarritasun turistiko handia du. Hona hemen eskualdeko aktibo turistiko nagusietako batzuk:




- Koben koba (Lanestosa)
- Karpin (Karrantza)
- Pozalagua kobazuloa (Karrantza)
- Armañongo Parke Naturala/Interpretazio zentroa (Turtzioz)
- Burdin Mendien Bide Berdea (Galdames-Sopuerta-Artzentales)
- Amalurra hotel spa (Artzentales)
- La Encartada fabrika-museoa (Balmaseda)
- Erdi Aroko azoka (Balmaseda)
- Pasio biziduna (Balmaseda)
- Enkarterrietako museoa (Sopuerta)
- Loizaga dorretxea (Galdames)
- Sopuerta Abentura(Sopuerta)
- Ibilbideak, pistak, antzinako ondarea, etab.

20. irudia: Enkarterriko aktibo turistiko nagusiak eta kokapena

Turismo-arloan hobetzeko potentziala badago, eskualdeko turismoa zabalduz eta sustatuz eta haren aktiboak modu koordinatuan balioetsiz

Egungo ondarea aprobetxatzea eta balioan jartzea Enkarterrirako aukera litzatekeela planteatu dute hainbat udalerrik, betiere turismo jasangarriaren eta errespetuzkoaren ikuspegitik antolatuta. Horretarako lan egin behar da, eskualdearen berri zabalagoa eman eta eskualdea sustatu behar baita, haren aktibo turistikoak modu koordinatuan balorizatuz, bisitari gehiago erakartzeko.

Eskualdeko turismoko enplegu-mailak Bizkaikoak eta Euskadikoak baino apalago mantendu dira aztertutako serie historiko osoan. Azken 10 urteetan enplegu-mailan hazkunde txikia izan bada ere (+% 0,7), 2018an haren pisua (% 10,1) Bizkaiko batez bestekoa (% 12,4) baino % 2 txikiagoa da. Hala ere, 2015etik hona askoz ere hazkunde handiagoa izan du, horrela, % 8,7tik % 10,1era igaro da, hau da, +% 1,4ko iguera izan du.



21. irudia: Turismoak Enkarterrin, Bizkaian eta Euskadin duen pisuaren bilakaera (turismo-sektoreko langileen %, 2009-2018)

Enpresa mailan, 2018an, Enkarterrin turismoari lotutako enpresak guztira % 13,6 ziren, Bizkaia osoko % 15,2ren eta Euskadiko % 14,6ren azpitik. Turismo-sektoreko enpresen pisua nahiko egonkor mantendu da 2011-2013 aldian beherakada nabarmena izan ondoren (-ehuneko 2,6 puntu).

2013tik aurrera, beheranzko joera alderantzikatu egin da, eta eskualdeko turismo-enpresek guztizkoarekiko duten pisua hazten hasi da, 2018an % 13,6ra iritsi arte. Oro har pisu txikiagoa izan arren, Enkarterrik izandako joera Bizkaia eta Euskadikoaren antzekoa da, baina nabarmenagoa.

2.5 Lurraldea eta Jasangarritasuna

Atal honetan Enkarterriko ingurumen-jasangarritasuna aztertu da, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei, eskualdeko birziklatze-tasari eta airearen kalitateari dagokienez. Eskualdearen estaldura digitala ere identifikatu da, eta, horretarako, kontuan izan dira banda zabala eskuratzeko aukera, mugikortasun-egitura nagusia eta eskualdean dagoen gobernantza-eredua.

2.5.1 Ingurumen-jasangarritasuna

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak halakotzat inbentariatuak dira, eta jasan izan duten edo jasaten duten jardueraren arabera inbentariatu dira. Azterketa espezifikoak egiten da jarduera instalatzeko, handitzeko, aldatzeko edo eteteko proiektua egin denean, edo lurzoru mugitzea eskatzen duen proiektua egin eta lurzoruaren kalifikazioa izango duen erabilera espezifikoaren arabera denean.

Enkarterrik 1.910.794 m² ditu kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan, Eskualdeko azaleraren % 0,4 besterik ez, Bizkaiko batez bestekoa (% 2,2) baino gutxiago.

Enkarterrin kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen % 75 industriakoak dira (meatze-jarduerak, jarduera petrokimikoak, metalurgikoak), guztira 1.438.469 m²; gainerako % 25a, aldiz, zabortegeak dira (472.325 m²).

Enkarterriko birziklatze-tasari dagokionez, 2001ean % 12,0koa zen, Bizkaiko % 15,7koa baino ia -3,7 puntu txikiagoa; eta 2018an, alde hori handitu egin da, guztira -6 puntura iritsi arte (% 16,9 eta % 22,9, hurrenez hurren).

Ingurumen-jasangarritasunaren alderdiekin amaitzeko, Enkarterriko airearen kalitatea ona edo onargarria da egunen % 99,95ean, Bizkaiko batez bestekoa (% 99,66) baino pixka bat gorago, hau da, urtean egun bat baino gutxiago airearen kalitate on edo onargarrikerik gabe.

2.5.2 Banda zabalaren eskuragarritasuna

Enkarterriko biztanleriaren % 49k ez du banda zabal ultralasterrik, hau da, 16.931 pertsonak eta 14 enpresak ez dute horrelakorik. Sopuerta, Karrantza eta Turtzioz dira estaldura txikiena duten udalerririk.

Enkarterrin kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen tasa baxua da, eta gehienak industriakoak dira

Biztanleen erdiek ez dute banda zabal ultralasterrik, batez ere landa-eremuan



22. irudia: Banda zabalaren eskuragarritasun-maila udalerrika

Oro har, Cadaguako korridorearen inguruko udalerriek banda zabal ultralasterrera konektibitate-sarearen estaldura handiagoa dute, bereziki Gueñesen, Zallan eta Alonsotegin. Landa-eremuko zenbait udalerritan, berriz, banda zabalik gabeko biztanleak ia % 100 dira: Sopuertan (% 97,4), Karrantzan (% 96,5), Turtziozen (% 94,8), etab.

Trenbideak biztanleriaren zati handi bati zerbitzua eman diezaiokeen arren, tren-zerbitzuaren maiztasuna eta fidagarritasuna ez da ona

2.5.3 Mugikortasuna

Mugikortasunari dagokionez, Enkarterriko komunikazio-arteria nagusia Cadaguako korridorea da. Cadaguako korridorea noranzko bikoitzeko 18 kilometro dituen autobia bat da, Enkarterri Bilboko metropoli-eremuarekin lotzen duena, eta zuzenean Alonsotegi, Gueñes, Zalla eta Balmaseda udalerriekin. Gainera, eskualdeko gainerako udalerririk gehienetara iristeko ardatza da.

Enkarterrik aldirietara bideratutako trenbide-sare bat du, ADIFek kudeatua; trenbide-sare horrek Bilbo Balmasedarekin eta Karrantzarekin lotzen dituen bi Renfe Feve linea ditu eta guztira 6 udalerriri (Alonsotegi, Balmaseda, Galdames, Gueñes, Karrantza eta Zalla) eskaintzen die zerbitzu zuzena.


Renfe Feveren bi zerbitzu-lineetatik batek, Bilbo eta Karrantza arteko R3b lineak, eskualdeko mendebaldeko udalerririk Cadaguako korridorearekin lotzen ditu, Arangurengo geralekutik.

Tren-zerbitzu hori eskasa da, zerbitzua etenda izaten da sarri; azpiegitura hobetzeko inbertsioak egiteko premia larria dago, baina linea horien erabilera gero eta txikiagoa da, zerbitzuaren fidagarritasun-maila txikia delako. Gainera, ez dago udalen arteko eskemarik eta eskema intermodalik ere ez garraio- eta jarduera-nodoetatik urrun dauden auzoak eta industrialdeak lotzeko.

Enkarterrin Bizkaibus zerbitzuko 9 linea daude guztira, eta 2018an milioi bat erabiltzaile baino gehiagori eman zien zerbitzua. 9 linea horietatik 4k eskualdeko udalerririk Bilborekin lotzen dituzte (horietako batek 30 minutuko maiztasuna du), bik eskualdeko udalerririk bakarrik lotzen dituzte eta 3k eskualdetik kanpoko udalerririk lotzen dute.

2.5.4 Eskualdeko gobernantza

Enkarterrik eskualdeko 4 erakunde ditu, publikoak edo partaidetza publikoak, eta eskualdeko udalen partaidetza desberdina dute:



23. irudia: Enkarterriko eskualde-erakundearen eskema (2019)

2.6 Ondorio nagusiak

Atal honetan, aipatutako eremuetako bakoitzeko ondorio nagusiak daude.

Enkarterri Bizkaiaren biriketako bat da, Bizkaiko baso-azaleraren % 20 du, lurralde historikorako baliabide natural eta turistikoaren iturria da, eta bi errealitate desberdin ditu:

- Cadaguako korridorean zehar dauden udalerrriak (Cadaguako eremua); industrializatuagoak, biztanle gehiagorekin (eskualdeko biztanleriaren % 78), hiriguneetan kontzentratuago, zerbitzuetan eta industrian oinarritutako egitura ekonomikoarekin.
- Landa-eremua, biztanle gutxikoa, zahartua eta lurraldean sakabanatua; nekazaritza, industria, abeltzaintza eta basogintzako ustiapenean oinarritutako egitura ekonomikoa du.

2.6.1 Suspertze ekonomikoa

Suspertze Ekonomikoaren ataleko ondorio nagusiak honako hauek dira: eredu ekonomikoa eraldatzeko beharra, hazkundea eta trakzio-enpresak eskualdera erakartzeko laguntza, intentsitate teknologiko handiko sektoreetarako joera eta turismoa aukera-eremu nagusizat identifikatzea.

Azken urteotan, Enkarterri murriztu egin du jardura ekonomikoa, barne-eskariko zerbitzuetan (hezkuntza, administrazio publikoa, etab.) oinarritutako ekonomiarekin.

BEGd-aren % 68rekin, Enkarterriko egitura ekonomikoan zerbitzuen sektorea da nagusi; Bizkaiko batez bestekoarekin alderatuz gero hirugarren sektoreak ez du horrenbesteko pisua, industrialagoa da eta eraikuntzak pisu berdina du. Egitura ekonomiko horrek eskulan handiko (bereziki kualifikatu gabea) jardueretarako joera du, BEGd eta enplegu terminoetan espezializatuta:

- Lehen sektorea: nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza; hazkunde esanguratsua izan du, gainera.
- Industria: produktu informatiko eta elektronikoak, zura, paperaren eta arte grafikoen sektorea eta altzarien eta beste manufaktura batzuen industria (azken bi horiek pisua galdu badute ere), metalurgia eta produktu metalikoen sektorean nolabaiteko hazkundearekin (presentzia mugatua izanda ere).
- Zerbitzuak: jardura sozialak eta administrazio publikokoak.

Enkarterri Eskualdeko 2030 Plan Estrategikoa

*Enkarterri
baliabide natural
eta turistikoaren
iturria da
Bizkaiarentzat*

*Enkarterriko
2030eko hazkunde
ekonomikoaren
ereduak balio
handiagoko
jardueretan
oinarrituta egon
behar du, denboran
jasangarriak izan
eta inbertsio
publikoaren mende
soilik ez daudenak*

Beraz, Enkarterriren 2030erako hazkunde ekonomikoaren ereduak balio handiagoko jardueretan oinarrituta egon behar du, denboran jasangarriak izango diren eta inbertsio publikoaren mende soilik ez dauden jardueretan, batez ere eskualdeko espezializazio-jardueretan: nekazaritza-industriaren sektorean, zuraren eta produktu eratorrien sektorean, osagai elektronikoen eta metalurgiaren sektorean, basogintzan eta ehungintzan oinarritutako bloekonomian eta turismoan.

Enpresa-kopuruari dagokionez, Enkarterrik ehun ekonomikoa dinamiza dezaketen trakzio-enpresen kopuru mugatua du (250 langile baino gehiagoko enpresarik ez, eta 25 langile baino gehiagoko 20 enpresa baino ez ditu).

2030erako, eskualdeko ekonomia-ehuna Bizkaiko batez bestekoarekin bat etor dadin, potentzial handieneko enpresak hazteko eta atxikitzeko baldintza egokiak sortu beharko dira. Eskualdean dauden enpresa handien behar espezifikoei erantzun beharko zaie, haien hazkundera errazteko.

Eskualdea biziberritzeko funtsezko elementuetako bat eskualdeko sektore estrategikoetan trakzio-efektua izan dezaketen enpresak erakartzea da. Horretarako, industria-jarduera garatzeko potentziala duten eremuak aprobetxatzeko aukerak ditu Enkarterrik, hala nola Orbijana, Montealegre eta Arkema.

Bestalde, Enkarterriko jarduera ekonomikoa intentsitate teknologiko baxuko sektoreetan kontzentratzen da, nahiz eta intentsitate handiagoko sektoreetaranzko joera egon: industria-enpresa gehien intentsitate teknologiko baxuko sektoreetan dago, nahiz eta intentsitate ertaineko sektorea den hazkunderik handiena duena 2009arekin alderatuta.

Berrikuntzaren aldeko apustua egin behar da, sentsibilizatuz, aukerei buruzko informazioa emanez eta laguntza-programa publikoetarako sarbidea hobetuz. Horrez gain, eskualdean dauden LHko zentroak berrikuntzaren eragileak izan behar dira eta arreta berezia eskaini behar diete ETEei eta mikroETEei.

Beharrezkoa izango da, halaber, berrikuntzari laguntzeko egituren aldeko apustua egitea. Egitura horiek, etapa honetan, dinamika sektorialak finkatzera bideratu behar dira bai eta eragileak eskualdearen barruan eta kanpoan lotzera ere.

Ekonomia Suspertzeko funtsezko ideiekin amaitzeko, eta eskualdeko aktibo turistikoaren potentziala kontuan izanda, bereziki garrantzitsua da turismo alorra eskualdearen garapenerako funtsezko elementu gisa baloratzea: hainbat aktibo turistiko bereizi daude, eta horiek antolatu eta aprobetxatu behar dira jarduera turistikoa sustatzeko, betiere modu jasangarrian.

2.6.2 Enplegua eta Prestakuntza

Enplegua eta Prestakuntza ataletik ateratako ondorio nagusiak Enkarterrin langabezia-tasa murriztu beharri eta eskualdean goi-mailako hezkuntza duten biztanleen ehunekoaren hazkundera buruzkoak dira.

Prestakuntzaren ikuspegitik, erroka nagusia da hezkuntza-arrakala murriztea Bizkaiko batez bestekoarekin alderatuta, batez ere goi-mailako tituludunen arloan, lana lortzeko baldintzak eta eskualdeko biztanleen ordainsariak berdintzeko.

Berrikuntzaren aldeko apustua egin behar da, berrikuntzarako laguntza-egituren alde eginez

Prestakuntzaren erroka nagusia da hezkuntza-arrakala murriztea Bizkaia-erakundearen eskola-uztearen tasa ere bai

Beheko hezkuntza-mailetan, Bizkaian baino eskola-uztearen tasa handiagoa murrizteari ekin behar zaio, batez ere landa-eremuetan.

Enpleguari dagokionez, Enkarterrik ratio txikiagoak ditu Bizkaiarekin alderatuta, eta eskulanaren birkualifikazioaren eta epe laburreko enplegu-planen bidez ari dira lantzen.

2.6.3 Gizarte Kohesioa eta Zerbitzu Publikoak

Gizarte Kohesioa eta Zerbitzu Publikoak atalaren ondorio nagusiak honako hauei buruzkoak dira: landa-eremuaren eta Cadagua ingurukoaren arteko alde demografikoak, landa-auzoak birgaitzeko beharra, jasotako batez besteko errenta baxua eta arau-hauste penalen tasa txikia.

Ildo horretan, Enkarterriko populazioa hazi egin da, eta Bizkaiko batez bestekoa baino gutxiago zahartu da, Cadaguako korridorean kontzentratuta, nahiz eta landa-eremuaren erronketako bat biztanle berriak eremura erakartzen laguntzea izan.

Enkarterriko gizarte-adierazle guztiak (batez besteko errenta, pobrezia-arriskua...) Bizkaiko batez bestekoaren azpitik daude. Alde hori mantendu egin da azken urteotan, nahiz eta eremu eta kolektibo bereziki kalteberak dauden.

Izan ere, bi errealitate daude: alde batetik, Cadaguako korridorearen eremua, non biztanleriak gora egin duen eta jaiotza-tasa handiagoa den; eta, bestetik, landa-eremua, hazkunde negatiboekin.

2.6.4 Hiri eta Ingurumen Biziberritzea

la udalerrri guztietan, eta, bereziki, landa-eremuan, auzo asko birgaitu behar dira, kalteberatasun-egoerari aurre egiteko eta biztanle-guneak sortzeko erakargarriak izan daitezten; dena dela, landa-auzo abandonatuak eta jarduera-nodoetatik urrun daudenak berregokitzera bidera daitezke beharrak, jarduera-eremu hauekin:

- Auzoetako irisgarritasuna hobetu, mugikortasunean puntu "beltzak" kenduz.
- Etxebizitzaren modernizazioa sustatu; izan ere, Enkarterriko etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna 50 urtekoa da 2018an, Bizkaiko batez bestekoa baino handiagoa (46 urte).

Landa-eremuetan barne-migrazioa dago Cadaguako korridorearen eremurantz.

Alde horretatik, eskualdea eraldatzeko beharrezko urratsa da dauden bizitegi-eremuak balioestea, etxebizitza berriek eragin mugatua baitute

2.6.5 Lurraldea eta Jasangarritasuna

Lurraldea eta Jasangarritasuna ataletik ateratako ondorio nagusiak herritarrek eskualdeari buruz duten pertzepzio oro har positiboari buruzkoak dira, bai eta ingurumen-jasangarritasunaren adierazle positiboari buruzkoak ere.

Landa-eremuko erronketako bat biztanle berriak erakartzea da

Auzoak herroneratzea beharrezkoa da, egoera kalteberari aurre egiteko eta biztanleguneak sortzeko erakargarri egiteko

Beharrezko lan-ildoetako bat Enkarterriko biztanleen konektibitatea hobetzea izango da


3 Eskualdeko Plan Estrategikoaren (EPE) estrategia

3.1 Erronka estrategikoak eta etorkizuneko ikuspegia: Enkarterri 2030

Enkarterrirako 2030erako 6 erronka estrategiko definitu dira

Diagnostikoan egindako Enkarterriren azterketa sakonari esker, bere enpresa- eta ekoizpen-sarearekin, herritarren gizarte-ezaugarri eta -beharrekin eta eskualdearen lurralde arloko berezitasunekin lotutako indarguneak eta hobekuntza-puntuak identifikatu ahal izan dira, hala nola hirigintza, konektibitatea edo landa-eremuaren eta Cadaguako korridorearen artean dauden aldeak.

Aintzat hartuta aztertutako informazio guztia eta diagnostiko-fasean egindako bilera eta elkarrizketa ugarietan parte hartu duten eragileen ekarpenak, 6 erronka estrategiko identifikatu dira Enkarterrin 2030erako.



24. irudia: Enkarterriren erronka estrategikoak 2030erako

1. erronkaren helburua eskualdeko baliabideei balio erantsia ematea da, berrikuntza- eskemen, lehen sektoreko prozesuetan teknologia txertatzearen eta basogintzako baliabideak industria-jarduera sortzeko aprobetxatzearen bidez

1. erronka. Eskualdeko baliabideei balio erantsia emango dieten industria eta jarduera eraldatzaileak bultzatzea. Zerbitzuen sektorearen pisu espezifiko handiagoan oinarritutako egungo eredu ekonomikoaren aurrean, Enkarterrik beste eredu ekonomiko baten alde egiten du: espezializazio handiena duten industria-eremuetan eta sektoreetan oinarrituan, balio-katean balio erantsi handiagoa ekarriko duten jardueretarantz eboluzionatuz. Zentzu horretan, beharrezkoa izango da:

- A) Lehendik dagoen enpresa- eta industria-sarearen hazkundera eta berrikuntza bultzatzea, batez ere eskualdean hazteko potentzial handiagoa duten eremuetan (osagai elektronikoak, metalurgia), enpresa-arloko eragile garrantzitsuen presentzian eta eskualdean tradizioa duten sektoreak (ehungintza, altzarigintza) suspertzearen aldeko ekimen berrietan oinarrituta, prestakuntza eta berrikuntza ardatz hartuta.
- B) Enkarterriko lehen sektorea oinarri teknologikoa duen nekazaritza-industriako sektore bihurtzea, teknifikazio, digitalizazio, teknologia eta berrikuntza proiektuak bultzatuz nekazaritzako elikagaien industriaren balio-kate osoan.

- C) Eskualdeko baso-baliabideen inguruko aukerak aprobetxatzea, jasangarritasunari dagokionez, balio erantsi handiko jarduera sortzeko basoa-zura-altzaria balio-kate osoan.

2. erronkak turismo jasangarria egituratu nahi du, turismo-aktiboen lankidetzeta eta modernizazioa indartuz

- 2. erronka. Turismoa dinamizatzea aukera-sektore gisa eta eskualdearen jasangarritasunaren alde egitea:** Enkarterrik balio handiko aktibo turistikoak ditu, baliabide natural eta kultural eta historikoetan oinarrituta, eta inplikaturako eragile eta erakundeen arteko ahalegin koherente eta koordinatua behar dute, bai turismoaren alorretik, bai lotutako beste sektore edo eremu batzuetatik, eskualdea lehentasunezko nitxo eta merkatuetan barneko xede turistikoa izan dadin.

3. erronkak talde kalteberen gizarteratzea eta laneratzeta indartu nahi du

- 3. erronka. Bizkaiarekin eta Euskadirekin bat egitea biztanleriaren ikasketa-mailetan eta kalitatezko enplegua lortzeko trebakuntzan:** Lehentasunezkoa da pertsona guztien prestakuntza-maila hobetzea, bai eskoletako gazteenena, bai profesionalena, pertsona kalteberak edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenak ahaztu gabe. Biztanleriaren ikasketa-mailak Bizkaiko eta Euskadiko neurri parekatzea da helburua, goi-mailako eta unibertsitateko prestakuntzarako sarbidea sustatuz eta enpresa-sarearen egungo eta etorkizuneko premiekin bat datozen prestakuntza-proposamenak sortuz, eta eskualdea bera eta haren ingurunea eraldatzeko potentziala eta aukera berriak dituzten sektoreei lotutako talentua garatuz.

4. erronkak eremu kalteberak birgaitzea nahi du

- 4. erronka. Eskualdeko errealitatera eta beharretara egokitutako gizarte- eta hirigintza-arloko esku-hartzea:** Enkarterrik esku-hartze integraleko plan bat izan behar du eremu kalteberenentarako, eta landa-eremuetan gutxieneko zerbitzuak bermatzeko behar diren ekimenak bultzatu behar ditu.

5. erronkaren bidez enpresa-gune berriak aktibatuko dira

- 5. erronka. Enpresak atxikitzeko, garatzeko eta erakartzeko espazioak sortzea:** Enkarterrik lehendik dauden enpresen beharretara egokitutako lurzoru-eskaintza izan behar du, haien hazkundea errazteko, bai eta etorkizunean trakzio-efektua eragingo duten ekimen berriak hartzeko lurzoru-eskaintza ere.

6. erronkaren xedea da Enkarterri barruko loturak areagotzea, baita eskualdeak lurralde historikoarekin dituenak ere

- 6. erronka. Mugikortasuna eta garraio jasangarria, barne-koehiorako eta Bizkaiko gainerako lurraldeekiko koehiorako elementu gisa:** Beharrezkoa da Enkarterriren eta gainerako lurralde historikoen arteko loturak sendotzea eta garraio-zerbitzu eta -azpiegituren kalitatea hobetzea, eskualdeko biztanleek Bizkaiko eta Euskadiko jarduera-nodo nagusietara (prestakuntza, enplegua, logistika, merkataritza, osasuna) iristeko aukera gehiago izan dezaten. Gainera, garraio- eta mugikortasun-eskema egokiek eskualdea maila guztietan eraldatzeko ahalmena dute, eta erakargarriagoa da biztanle berrientzat, turismoarentzat eta txangoentzat, enpresa berriak erakartzea eta lehendik daudenak erabiltzea erraztuz, eta urruneko auzoak eskualdeko eta lurraldeko jarduera sozioekonomikoko nodo nagusiekin lotzea erraztuz.

Enkarterriko Erakunde arteko Plan Estrategikoko talde eragileak adostutako sei erronka horietatik abiatuta, 2030erako etorkizunerako ikuspegi hau ondorioztatzen da eskualderako.

Enkarterri eskualde berdea da, gizarte-kohesio handikoa eta aukera-berdintasunekoa. Prestakuntza/hezkuntza maila handiko biztanleria du, eta, gizarte eta ekonomia eraldatzeko prozesuari esker, 2030. urtean erreferente bat izango da jasangarritasunean eta ekonomia berriko aukera-sektoreetako enpresen erakarpenean – hala nola ekonomia zirkularra, bioekonomia, energia eta turismoa –, kalitatezko enplegu-aukera berriak eta Bizkaiko eta Euskadiko gainerakoen pareko ongizate ekonomiko eta soziala sortuz.

Eskualdearen egoera, konektibitatea eta mugikortasunerako eta garraiorako irtenbide iraunkorrak ezartzearen ondorioz, Enkarterri:

- *Enpresak eta ekimenak garatzeko eta erakartzeko leku erakargarria da, berreskuratutako edo egokitutako espazio berrietan.*
- *Eskualdeko aktibo natural eta kulturaletan oinarritutako helmuga turistiko erakargarria da, arduratsua eta iraunkorra, gizarteari onura sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ingurumenekoak ekartzen dizkiona eta*
- *Bilboko metropoli-eremutik hurbil dagoen kalitatezko hiri- eta landa-habitata da, bertan bizi eta lan egiten duten pertsona guztiei garapen pertsonal eta profesionalerako, bizi-kalitaterako eta ongizaterako aukerak eskaintzeko gai dena, bazterketarik gabe.*

4 Eraldaketa-programa

2020an Enkarterri Sustatzeko Plana lantzen jarraitu da eta EPEn identifikatutako erronkak lantzen ere bai

4.1 2020ko jarduerak

2018-2019 aldian Sustatzeko Plana garatu ondoren, 2020. urtean Eskualdeko Plan Estrategikoa hasia aurreikusi zen. Enkarterri Euskadiko lehentasunezko jarduketaren eremuetan sartzearen eta COVID-19aren krisiaren ondorioz Enkarterriko Eskualdeko Plan Estrategikoa 2021-2030 denbora-muga du.

Dena dela, 2020an Sustapen Planeko arloak eta Eskualdeko Plan Estrategikoa egitean identifikatutako erronkak lantzen jarraitu da.

Eusko Jaurlaritzak 16.178.531 euro inbertitu ditu arlo hauetan egindako jardueretan: Enplegua eta Gazteria, Nekazaritza, Industria, Teknologia eta Berrikuntza, Etxebizitza, Gizarte Politikak eta Lanbide Heziketa.

Era berean, 2020an, goi-mailako prestakuntza-espezialitate berri bat sartu du Sopuertako San Viator zentroak: sistema elektronikoa eta automatizatueta goi-mailako teknikariaren titulua.

Bizkaiko Foru Aldundiak 30.999.501 euro inbertitu ditu Enkarterri 2020an, arlo hauetan egindako jardueretan: Ekonomia Sustapena, Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna, Iraunkortasuna eta Ingurumena, Kultura, Gizarte Ekintza eta Garraioak.

Eskualdeko errepide-sarea hobetzeari dagokionez, BI630 errepidea hobetzen jarraitu da: Malabrigo-Traslaviña zatia eta Zallako "La Herrera" bizikleta-bidea. Guztira, 6.928.755 euroko inbertsioa egin da.

Banda zabala hedatzen jarraitu da, jarduera ekonomikoko eremuetan eta biztanleguneetan Internetarako konexioa bermatzeko.

EPEaren barruan sartzeko dira eskualdearen erronkekin bat datozen ekintza eta proiektu ugariak, egungo, indarrean diren edo aurreikusitako ekimenak barne, bai eta hedatzen ari den bitartean sortuko direnak ere

4.2 Eraldaketa Programako jarduketaren identifikazioa

Identifikatutako 6 erronka estrategikoetatik abiatuta, dokumentu honen 1. kapituluaren deskribatutako planaren gobernantza-ereduan abian jarri dira Foro Adituak izenekoak.

Aurrez deskribatutako sei erronketako bakoitzarekin zerikusia duten eskualdeetako eta eskualdez gaindiko eragileak daude Foro Aditueta, eta eskualdearen erronka estrategikoei eta horiek lortzeko moduari buruz hausnartzea eta eztabaidatzea dute xede, erronka horiek lortzean aurrerapen esanguratsuak eragiteko adinako garrantzia duten jarduerak, ekimenak eta/edo proiektuak proposatuz.

Helburu horrekin, Planaren Idazkaritza Teknikoak Foro Adituen lan-saioak antolatu ditu. Saio horiei esker, banakako elkarrizketekin batera, jarraian laburbildu den programa eraldatzailea eratu ahal izan da eta trakzio-proiektuak hautatu dira.

1. ERRONKA. Eskualdeko baliabideei balio erantsia emango dieten industria eta jarduerak eraldatzaileak bultzatzea.

1.1. Enpresa eta industria sarea hazi eta berritzea sustatzea Enkarterrin
Dagoen industriari zeharkako laguntza ematea, arreta berezia jarriz eskualdeko ekonomian trakzio-efektua izan dezaketen enpresei, haien egonkortasuna eta hazkundera bermatuz.
Trakzio-enpresak erakartzea, eskualdeko sektore estrategikoetan trakzio-efektua izan dezaten eta sare ekonomikoa dinamiza dezaten. Enkarterriko eskaintza erakargarri bat sortu, inbertsiorako xede izan dadin.
Berrikuntzari laguntzeko programak garatzea, eskualdeko enpresen berrikuntza-jarduera areagotzeko eta hari ikusgarritasuna emateko.
Erakundearen balio-proposamena finkatzea, eskualdeko ekonomia sustatzeko eta eskualdeko industria- eta zerbitzu-enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Garatu beharreko lan-ildoen artean, honako hauek nabarmentzen dira: <ul style="list-style-type: none"> • Enpresentzako aholkularitza, laguntza-programen kapilaritatea eta lehiakortasunari laguntzeko tresnak. • Proiektu ekintzaileak mikrofinantzatzeko programa. • Berriazko laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua, eskualdean instalatu nahi diren instalazioak eta/edo proiektu berriak handitzeko beharra duten enpresentzat, etab.
Diskriminazio positiboa, programa eta laguntzetan lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko.
Garapen- eta sendotze-arloko laguntzak Basque Design Center diseinurako eta garapenerako zentroa izan dadin ekonomia zirkularrarekin zerikusia duten joera berrietan.
1.2. Enkarterriko lehen sektorea oinarri teknologikoa duen nekazaritza-industriako sektore bihurtzea
Lankidetzeta-dinamikak garatzea lehen sektoreko eragileen artean (nekazaritzako elikagaien Open Lab), ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako aukera berriak egon daitezen, eta nekazaritzako elikagaien balio-katean dagoen jarduerari laguntzea eta balioa ematea.
Sektorearen belaunaldi-erreleboa bultzatu eta gazteak sartzea, ustiategi digitaletara eta nekazaritzako eta abeltzaintzako baliabide eta hondakinen aprobetxamendura aplikatutako teknologien erabilerari buruzko prestakuntzarekin.
KMO produktuen eta profesionalen balioa nabarmendu eta ikusaraztea, kalitatea eta natura-ingurunearekiko errespetua sustatuz.
Enkarterriko nekazaritzako industria eta abeltzaintzako industria digitalizatzerara bideratutako 4.0 Nekazaritza Programa.
1.3. Baso-baliabideen aukerak aprobetxatzea balio erantsiko zuraren industria-jarduera gehiago sortzeko
Open Lab ekimena basogintza eta egurraren sektorera hedatzea, eskualdeko sektoreko eragileen artean lankidetzeta-sareak sortuz.
Basogintzako jarduera ekonomikoa eta zura eraldatzearekin zerikusia duena optimizatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Hazia eta baso-landarea ekoizteko mintegia. • Zentro logistiko bat garatzea, zura sailkatzeko zentroa izan dadin.

Fruituen ekoizpenean eta mikologian prestakuntza- eta esperimentazio-ildoak garatzea.
Zuraren parkeak sortzea, eskualdean eraldaketa-jarduerak sartu eta balio agregatu handiagoa sor dezaten (pelletak sortu, biomasa, erretxina likidoa aprobetxatu bioplastikoetarako beharrezko osagai gisa eta antzeko produktu berritzaileak).
Zurarekin eta baliabide naturalekin lotutako bioteknologiak ikertzeko eta aprobetxatzeko zentro bat sortzea.
1.4. Bioekonomiara bideratutako ekonomia zirkularreko ekimenei laguntzeko programa, eskualderako aukerako arlo gisa

2. ERRONKA. Turismoa dinamizatzea aukera-sektore gisa eta eskualdearen iraunkortasunaren alde egitea
2.1 Eskualdeko turismo-sektoreko eragileen arteko lankidetzeta, eskualdean turismoa sustatzeko lankidetzeta publiko-pribatuko sare aktibo bat sortzeko.
2.2 Enkarterriren posizionamendu turistikoa hobetzea, potentzial turistikoa duten aktibo natural eta kulturalen ustiapen jasangarriari lotutako nitxoetan.
2.3 Eskualdeko baliabide natural, kultural eta historiko nagusien inguruan egin eta antola daitezkeen turismo-produktuak eta esperientziak garatzea.
2.4 Baliabide turistikoak digitalizatzeko programa: Enkarterriko turismo-jardueraren eraldaketa digitala, eskualdeko baliabide eta atrakzio nagusien balioespen digitala barne hartzen duena, bai eta interpretazio digitaleko sistemen inplementazioa eta ibilbide eta esperientzia turistikoaren georreferentziak ere.
2.5 Sektorea profesionalizatzeko eta digitalizatzeko programa, bisitariaren esperientzia errazteko eta turisten eta txangozaleen esperientzia hobetzeko. <ul style="list-style-type: none"> • Sarrerren salmenta on line, check in on line, seinaletika digitala, etab. • Prestakuntza-programa: marketin digitala, hizkuntzak, negozio ereduak berri...
2.6 Eskualdeko aktibo garrantzitsuen balorizazio turistikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Karpin. • Burdin Mendien bide berdearen egokitzapen eta sustapen turistikoa, eskualdeko beste baliabide turistiko batzuekin eta Ezkerraldea-Meatzaldeko eskaintza turistikoarekin loturak ezarriz. • Beste aktibo batzuk.
2.7 Ezkerraldea-Meatzaldearekin sinergiak aprobetxatzea turismoaren bidez: Meatzari-iragana, industria-ondarea, bizikletentzako ibilbideak eta Enkarterrirako eta Meatzalderako turismo-kudeaketako erakunde komun baten abantaila.
2.8 La Encartada Fabrika-Museoa sustatzea.
2.9 Eskualderako konexioa eta sarbidea hobetzea, zenbait garraibideren bidez. <ul style="list-style-type: none"> • Bilboko erdigunetik Enkarterriko bihotzera doan turismo-tren baten bideragarritasuna aztertu, slow turismo-produktu gisa, eskualdeko trenbide-azpiegiturak eta -zerbitzuak hobetuz. • Turista gehien biltzen diren garaietan autobus turistiko elektrikoko zerbitzua

bultzatzea. (Kontzesio publikoa edo ekimen pribatuko estimulua).

3. ERRONKA. Bizkaiarekin eta Euskadirekin bat egitea biztanleriaren ikasketa-mailetan eta kalitatezko enplegua lortzeko trebakuntzan:

3.1 Eskola uztea prebenitzea, detekzio goiztiarreko programa koordinatuen bidez, eta hezkuntza-estimuluan eta -orientazioan gazteei laguntzeko gida pertsonalizatuak garatzea, ikasketa-maila handiagoak lortzeko.

- Ikastetxe, erakunde eta familiekin koordinatzeko mahai mankomunatua sortzea.
- Detekzio goiztiarreko eta orientazioko programak abiaraztea baliabide gehiagorekin.
- Hautemandako kasuetarako prestakuntza-ibilbide espezializatuak zehaztea, eta duela gutxi eskola utzi dutenak berriro erakarri eta gaitasun handiko kasuetarako berariazko ibilbideak finkatzea.
- Osoko esku-hartzeen programekin lankidetzan aritzea (auzo kalteberak, bazterketa-arriskuan dauden edo/eta kalteberatasun handia duten familiak edo kolektiboak).

3.2 Kolektibo kalteberak gizarteratzeko eta laneratzeko programak garatu eta haien enplegagarritasuna hobetzea (iraupen luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoak, 30 urtetik beherako gazteak), prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuak sortuz eta eskualdeko enpresek pertsona horiek kontrata ditzaten bultzatuz.

3.3 BFAko Gizarte Ekintza Sailaren proiektu pilotua, absentismo-tasa handiko eremuetan babesgabetasun-egoerak prebenitzeko.

3.4 Enkarterriko Lanbide Heziketako ikastetxeek prestakuntza-eskaintza berriak garatzea, eskualdeko espezializazioaren arabera eta balio erantsia sortuz sektore tradizionalen inguruan, bai eta Enkarterrirako eta haren ingururako potentzial handiko sektore berrien inguruan ere (bioekonomia, energia, mugikortasun elektrikoa, zahartze aktiboa...).

3.5 Elkarrizketa-mahaiak abiaraztea prestakuntza-eragileen, erakundeen, enpresen eta gizarte-sarearen artean, Enkarterrin prestakuntza- eta enplegu-mailak hobetzeko ekintza bateratu eta koordinatuak garatzeko. Inguruko enpresen egungo eta etorkizuneko beharrak identifikatzeko eta eskaera horiei erantzungo dien talentua sortzeko beharrezko ekintzak garatzeko mahaiak.

3.6 Eskualdeko gazteen eta profesionalen artean gaitasun digitalak sortu, eskualdearen beharrezko eraldaketa digitalari eta enpresei eta sektore estrategikoei lotutako proiektuei (esaterako, agroindustria edo turismoa) euskarria emateko.

4. ERRONKA. Eskualdeko errealitatera eta beharretara egokitutako gizarte- eta hirigintza-arloko esku-hartzea:

4.1 Eskualdeko eremu kalteberenetan (Alonsotegi, Zalla, Balmaseda eta Gueñesko auzoak) esku hartzeko plan integral bat diseinatzea, eskualdeko beste eremu batzuetara zabaltzeko modukoa.

4.2 Auzoak berritzeko hobekuntza edo esku-hartze txikien inbentarioa eta programazioa: urruneko auzoetarako sarbidea, oinezkoentzako bideen irisgarritasuna, hiri-altzariak, etab.

4.3 Gizarte-premia espezifikoak dituzten kolektiboek laguntzea, haien dimentsioa eta

problematika zehatz-mehatz ezagutu ondoren <i>ad hoc</i> diseinatutako gizarte-kohesioko programen bidez.
4.4 Banda zabaleko azpiegitura eskualdeko eremu guztietara hedatzea eta indartzea, bai bizitegi-auzoetara, bai industrialdeetara, bai urrun dauden nekazaritza- eta baso-ustiategietara, eskualdeko erronkekin eta herritarrei emandako zerbitzuarekin bat datozen zerbitzu digitalak eskaini ahal izateko.
4.5 Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean egoten laguntzeko ETXETIC eredu hedatzea.
4.6 Bizkaiko Foru Aldundiaren osoko arretako bulegoa irekitzea Balmasedan.

5. ERRONKA. Enpresak atxikitzeko, garatzeko eta erakartzeko espazioak sortzea

5.1 Enpresa-espazio berriak garatzea, tamaina nahikoa duten lurzatiekin, garraio-sareetarako sarbide errazarekin eta enpresa-zerbitzu aurreratuekin, dauden enpresen hazkunde-premiei erantzuteko eta eskualdera enpresa berriak erakartzeko.
5.2 Enkarterrin kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen potentziala aprobetxatzea, industria-jarduera garatzeko.
5.3 Industria-jarduera garatzeko potentziala duten gunek eta poligonoak kudeatzeko eskualdearen gaitasunak hobetzea.
5.4 Abandonatutako edo erabiltzen ez diren industria-espazioak eta -pabiloiak identifikatzea, bai eta horiek berreskuratzeko eta birgaitzeko potentziala ere, eskualdeak eskaintza erakargarria eta nahikoa izan dezan ekonomia suspertzeko eta enpresak garatzeko.

6. ERRONKA. Mugikortasuna eta garraio jasangarria, barne-kohesiorako eta Bizkaiko gainerako lurraldeekiko kohesiorako elementu gisa

6.1 Enkarterri eta Bizkaiko gainerako lurraldeen arteko garraio-azpiegituren eta -zerbitzuen kalitatea hobetzea, Enkarterriko biztanleek Bizkaiko eta Euskadiko jarduera- eta zerbitzu-nodoak (prestakuntza, enplegua, logistika, merkataritza, osasuna, etab.) eskura izateko maiztasun egokiagoa eskainiz: <ul style="list-style-type: none"> • Karrantzara doan trenbide-konexioa eta maiztasuna hobetzea. • Trenbide-pasaguneak kentzea. • Bizkaibuseko zerbitzu berriak eta trenbideekin konexioak. • BI-630 errepidea hobetzea. • Balmasedara arte "Metro" maiztasuna lortzeko jarduketak, 2030. urteari begira
6.2 Eskualdearen barne-konexioko eskemak garatzea, jarduera- eta garraio-nodoekin, arreta berezia jarrita errepide-bide nagusietan (Cadaguako korridorean), trenbide-lineetara zuzeneko sarbiderik ez duten udalerrietan eta landa-eremutik urrutien dauden auzoetan. <ul style="list-style-type: none"> • Landa-guneetako biztanleen garraio-premiei eskualdeka/modu mankomunatuan erantzuntea. Garraio-ekimen publiko-pribatua <i>on-demand</i>.
6.3 Bizikletaz egiteko ibilbideak: eskualdean dagoen sarea osatu ahal izateko ziklobideak lotzeko zatiak garatzeko inbertsio-programa, baita beharrezkotzat jotzen diren ibilbide berriak garatzeko inbertsio-programa ere.

6.4 Udalez gaindiko anezka elektrikoen zerbitzua, urruneko auzoetatik garraio-linea nagusietarako sarbideetara.

6 trakzio-proiektu identifikatu dira, 2030erako Enkarterriren hazkundera eraldatzeko eta trakzionatzeko duten gaitasun handiaz erabateko adostasuna lortu baita

4.3 Trakzio-proiektuak

EPEa osatzeko prozesuan egindako Adituen Foroetako bileretan hainbat eragile sozial eta ekonomikok egindako ekarpenetatik eratorritako Eraldaketa Programan jasotako ekimen eta jardueretatik abiatuta, jarduketa-ildoak lehenesteko eta trakzio-proiektuak identifikatzeko lanari ekin zitzaion, Talde Eragilearen, esparru instituzionaleko eragile erreferenteen eta herritarren inplikazioarekin, online parte hartzeko prozesu baten bidez.

Proiektu eragile horiek ondorengo ezaugarri hauek dituzte:

- Eskualdea eraldatzeko gaitasun handia duten proiektuak dira.
- Eskualdeko erronka estrategikoetako batean ez ezik, beste batzuetan ere ezarpena eta eragina dute.
- Eskualdeko ekonomian trakzio-ahalmen handia eskaintzen dute.
- Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko prozesuan adostasun handiko proiektutzat jo dira, eta instituzioek nahiz horietan parte hartzen duten eragile garrantzitsuek proiektu horiek bultzatzeko konpromisoa hartu dute.
- Gauzatzeko eta abiarazteko epe bat identifikatu da, Eskualdeko 2030 ikuspegian lor daitekeena, nahiz eta haren eragina geroagokoa izan daitekeen.

Hala, 6 trakzio-proiektu lehentasunekotzat jo dira eskualdearen garapen ekonomiko eta sozialerako eta aurrez identifikatutako erronkak eraginkor ebazteko; 2030erako lortzeko asmoa dago:

1. Eskualdeko barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua
2. Enkarterriko aktibo turistikoak eta kulturalak lotzea
3. Hezkuntza/lan mundua integratu: Lanbide Heziketa eta lan munduan sartzea garatzea
4. Landa-eremuen digitalizaziorako banda zabala hedatzea
5. Enpresa-guneak sortzea
6. Bioekonomia sustatzea Enkarterrin

25. irudia: Enkarterri Eskualdeko Plan Estrategikoko trakzio-proiektuak

1. **Eskualdeko barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua:** trena Enkarterriko elementu egituratzaila bihurtu Cadaguako korridorean, kalitate eta maiztasun handiko zerbitzuekin Balmasedara arte, linearen zerbitzua hobetu Karrantzarekin lotzeko; udalerrien eta trenbide-sarearen arteko loturak Bizkaibuseko zerbitzuekin lotu, eta BI-630 errepidean egiteke

dauden 4 tarteak osatu; azken finean, Enkarterriren erronkei epe luzera erantzungo dien garraio sistema sortu.

2. **Enkarterriko aktibo turistikoak eta kulturalak lotzea:** Enkarterri barnealdeko xede multitematiko gisa kokatu. Jasangarritasun-printzipioetan eta ekonomia laranja izenekoan oinarritua, xedeko kultura, sormena eta identitatea oinarri dituen. Enkarterriko eskaintza turistikoari balioa ematea eta koordinatuta sustatzea da helburua.

lido horretan, proiektuaren abiapuntua bi nodo edo polo sortzea da, eta bi polo horietatik eskualdeko gainerako tokietara fluxuak erakartzea eta banatzea; horretarako, turismo-aktibo guztien, turismo-produktuen eta puntu anitzeko esperientzien eskaintza koordinatua eta integratua hartuko da abiapuntutzat, Tour definitu eta egituratuekin.

3. **Hezkuntza/lan-mundua integratzea: Lanbide Heziketa eta lan-munduan sartzea garatzea:** Lanbide Heziketarako Ikastetxe Integratuaren garapena bultzatu, eskualdean dagoen eskariarekin bat datozen heziketa-zikloak txertatuz eta, bestetik, Lanbide Heziketari lotutako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 3R programarekin bat datorren laneratzeko programa zehatz bat sortuz.

4. **Landa-eremuen digitalizatorako banda zabala hedatzea:** Eskualdeko toki guztietan banda zabal ultralastera ziurtatu.

Era berean, eta teknologia horren ahalmen eraldatzailearen aprobetxamendua maximizatze aldera, eskualdean digitalizazioa bizkortzeko ekimenak abiaraziko dira, batez ere nekazaritzako elikagaien sektorean, basogintzakoan eta turismokoan, eta herritarrei zerbitzua hobea emateko ekimenak ere bai.

5. **Enpresa-guneak sortzea:** Zallako Longar poligonoan Elkartegi bat sortzea, eta industrialde berriak garatzeko eta antzinako industria-kokalekuei balioa emateko aukera izatea, zerbitzu teknologikoki aurreratuak eskaintzen dituen lurzorua edukitzeko, eskualdean dauden enpresen hazkundea errazteko eta espazio-premia desberdinak dituzten enpresa eta jarduera berriak erakartzeko.

Era berean, eta hori guztia osatzeko asmoz, eskualdean erabili gabe dauden industria-pabiloiak berreskuratzeko jarduketak jarriko dira abian.

6. **Bioekonomia sustatzea Enkarterrin:** Baso-bioteknologiako zentro bat garatu, Enkarterrin bioekonomian oinarritutako eredu ekonomikoaren garapena sustatzeko trazio-elementua izan dadin.

Eredu ekonomiko berri hori Bioekonomiako Programa baten bidez egituratuko da, eta proiektu berritzaileak sortuko dira hiru eremutan: nekazaritza- eta nekazaritza-elikagaien katea, basoa-zura-altzarigintza katea eta ekonomia zirkularra.

Hori guztia osatzeko, gainera, Gueñesko Basque Design Center (modaren, ekonomia birsortzailearen eta biodiseinuaren diseinu eta garapenerako zentroa) eta Balmasedako Nekazaritzako Elikagaien OpenLab delakoa garatuko dira, nekazaritzako elikagaien berrikuntza errazteko balio-kate osoan (ekoizpena, eraldaketa, banaketa, etab.), prestakuntza-jardunaldien, kasu arrakastatsuetarako bisitaldien eta erreferentziako tokiko ekimenezko sarien bidez. Ekintzailatzarako eta barne-

ekintzailtzarako aukerak eragiten dituzten azpiegiturak dira, eta gaur egun eskualdean dagoen jarduera babesteko eta balioesteko gai direnak.

6 trakzio-proiektu horietako bakoitzak lotura zuzena du Enkarterrik 2030erako dituen 6 erronkek dituzten arazoekin eta hobetzeko aukerekin.

6 trakzio-proiektuek multzo orekatua osatzen dute, eta eskualdeko erronka guztietan eragiten dute

Proiektuak	1R. Industria eta jarduera eraldatzaliek bultzatzea	2R. Turismoa dinamizatzea eta jasangarritasunaren alde egitea	3R. Biztanleriaren trebakuntza eta kalitateko enplegurako gaitzea	4R. Eskualdeko errealkitatera eta beharretara egokiturako gizarte- eta hirigintza-arioko esku-hartzea	5R. Enpresak abdikitzeko, garatzeko eta erakartzeko espazioak sortzea	6R. Mugikortasuna eta garralo jasangarria
1. Eskualdeko barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua	✓	✓	✓	✓	✓	✓
2. Enkarterriko aktibo turistikoak eta kulturalak lotzea		✓	✓			
3. Hezkuntza/lan mundua Integratu: Lanbide Heziketa eta lan munduan sartzea garatzea	✓		✓	✓		
4. Landa-eremuen digitalizaziorako banda zabala hedatzea	✓	✓	✓	✓	✓	
5. Enpresa-guneak sortzea	✓			✓	✓	
6. Bioekonomia sustatzea Enkarterrin	✓		✓		✓	

26. irudia: EPEko trakzio-proiektuen eragina Enkarterriko erronketan

1. trakzio-proiektua. Eskualdeko barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea, bereziki Enkarterrirako trenbidearen azpiegitura eta zerbitzua

Justifikazioa: aurrekariak

- Bilbo eta Balmaseda lotzen dituen bi tren linea ditu Enkarterrik, eta biztanleen % 75i ematen die zerbitzua (23.000 biztanleri).
- Hala ere, tren-zerbitzua eskasa da eta planifikatu gabeko mozketak izaten ditu, bereziki Bilbo-Karrantza linean.
- Ordutegi zabalagoa eta ibilbide gehiago jarritz hobetzeko aukera. Eta trenbidearen azpiegitura eta zerbitzua hobetzea, eki-poak berrituz.
- Enkarterriko mendebaldeko irisgarritasuna hobetzea, plataforma egokituz eta zabalduz eta BI-630 errepidearen trazadura zuzenduz.

Trakzio-proiektuaren deskribapena

- Trena Enkarterriko elementu egituratzaile bihurtzea, azpiegituretan, maiztasunean eta zerbitzuaren kalitatean eta fidagarritasunean inbertituz. Proiektuaren esanetan honako hauek dira elementu indargarriak:
 - Zero isurketako lineak garatzea, azpiegitura egokituz.
